

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria 2013ko maiatzaren 24a. 337. zenbakia. 24. urtea

Euskara ahora KARKARA plazara

Euskarazko prentsaren egoera plazara atera nahi izan dugu KARKARAK eta Berriak elkarlanean. *Zaindu maite duzun hori* kanpainaren bitartez. Irudi politikak utzi dizkigu aldarrikapen kutsuko festak.

05

Herriko kontuak
Ikastexetako jaialdiak

09

Kirol elkarrizketa
Arraunlari kadeteak

10

Aiako elkarrizketa
Joxe Mari eta Luis Ibarguren

23

Adarretatik helduta
Nora Makazaga

BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.

Hezkuntza sistema berritua

1

Ostiraletan zein pozik ginen eta orain berriz beldurrez, agintariek edozein lege aldatzen dute eta erreiz. Gurearekin lehendik nahikoa badaukagunean berez, *mejora* asko egin dituzte ta gainera letxe txarrez.

2

Aurreko astean onartu zuten Werten LOMCEren legea, aurreko hartatik inondik ere suma daiteke alde. Gaztelerari egingo dio sekulako mesedea, gainerakoen eskubideak non kristo daude ordea?

3

Erljioa berriz gelara etika alboratuta, neska-mutilak bi eskolatan berriz ere banatuta, eta irakasle kopuru handi bat lanetik kaleratuta... Hau da hezkuntza sistema ona lehengoa *mejoratuta*.

337

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527

Editorea
Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria
Lore Berasaluze

Erredakzio taldea
Irati Agirreazaldegi,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea
Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua
Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Ale honetako laguntzaileak
Jon Barrenetxea,
Ibon Gaztañazpi,
Arkaitz Iruretagoiena,
Nora Makazaga
eta Zorione Mendez

Laguntzaileak
Eli Huegun
eta Iñaki Iturain

Diseinua
Karkara taldea

Banatzzaileak
Kattalin Bollain eta
Esti Uranga (Ori) /
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oriati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.050 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremen daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



MUNDO VISUAL

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko
Iker Gurrutxagarekin hitz egin
(943 831 527) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Orioko Curriculuma hizpide

Hezkuntzari buruz hitz egin da egun hauetan. Hezkuntza jarri da balioan, historia, nortasuna, eta herria. Urteetan, Orion, ahotan izan dugu hezkuntza, baina ez da izan edukiei buruz hitz egiteko, bestelako terminotan hitz egin dugu.

Orioko errealitatea anitza da eta horreke gaiten gaitu aberats. Aberats kulturaren, aberats hizkuntzan, aberats gizarte ereduaren eta nola ez aberats hezkuntzan. Batzen eta desberdintzen gaituen elementu bat da curriculuma. Baionako, Iruñeko edo Donostiako gazte baten heziketa prozesua desberdina da. Desberdina forman eta desberdina edukietan. Baina elkartzeko dituen elementuak bilatu eta bilduz gero, oinarri sendo bat eraikiko dugu: hezkuntza sistema nazional bat eraikiko dugu.

Nondik gatozen, non gauden eta nora goazen. Hiru galdera horiek erantzuteko asmoz, legealdiko helburu gisa jarri genuen Orioko Curriculum proiektua aurrera eramatea. Luzea da prozesua, baina heziketan bezala, ibilbidea da garrantzitsua. Prozesua bera da ikasteko eta elkar irakasteko tresna. Eta prozesu horren parte izan ziren 2010ean osatutako O3ten lehen hezkuntza jardunaldiak eta bukatu berri diren O3ten bigarren hezkuntza jardunaldiak.

Orioko Bildurentzat oso garrantzitsua da etorkizunerako tresna izango den Orioko Curriculum eraikitzea; errentagarritasun handia izango duen proiektu bat lantzea. Mantenu gastuei dagokienez, herritarren eta hezkuntza eragileen inplikazioa eta motibazioa izango direna, denen artean osatua: lehenaldian oinarritu, egungo errealitatea irudikatu eta etorkizuna marraztuko duen curriculuma.

Orioko Curriculum Sortzen taldeak jardunaldiak antolatzeaz gain, proiektuaren gidaritzapean hartzeko jarrera erakutsi du. Lana bistan jarri eta inolako atzerapausorik eman gabe, erabat motibatuta dagoen taldea da eta aprobetxatu beharra dago bultzada. Bilduk argi dauka proiektua lagundu behar dela ahalik eta baliabide gehien eskainiz eta hori bideratzeko ahalegina egingo dugu. Egungo egoera ekonomikoa ez da egokiena. Baina, mahaiaren gainean daukagun proiektua, herrikoia, inklusiboa, parte hartzailea, anitza, erabilgarria eta beharrezkoa da. Bilduk babes osoa emango dio bada Orioko Curriculum proiektuari. ■ **Orioko Bildu.**

Oraini botoa emanaz damututa

Orainen programan irakurri nuen: *Oria itsasadarra berreskuratu nahi dugu. Horretarako, Motondon hasi beharko litzateke lanean, parte-hartze mahaia sortuz eta eremu horretarako berreskuratze proiektua finkatuz.* Hautagaietako batzuk ezagutzen nituen eta botoa eman nien.

Gaur egunkariak dio Orainek Motondo berreskuratze proiektua geratu duela. Jaurlaritzak horretarako emandako diruari uko. Zergatik? Garai batean Udalak hango lurra erosten gastatutako dirua Jaurlaritzak ez diolako eman nahi. Harrituta geratu naiz. Aurreko Udalak, jakinik Motondo babestuta zegoela, partikular bati bi milioi euro oparitzeko erabaki ergela hartu zuelako, orain oriotar guztioi mesede egingo ligitukeen berreskuratzea geratu? Bai, oriotar guztioi. Txorizale zein arraunlari, arrantzale zein dendari, turistazale zein kontrako. Motondo berreskuratze arrazoietako bat herrian uholdeen arriskua gutxitzea baita. Hala dio URA agentziak. Baina Oraingo hori bost axola. Programan aipatzen zuten berreskuratze plana martxan dagoenean, hura blokeatu. Zer eta, beste batzuk partikular bati egindako oparia Jaurlaritzari kobratu nahirik.

Honezkerok EAJ hasita dago hurrengo lege gintzaldirako Udala irabazi eta Motondoko berreskurapen-lanen inaugurazioa prestatzen! ■ **Arturo Eloseg**

Eta zergatik ez putetxe bat?

Futbol zelai ondoko auzo berrian bizi naiz. Ilusio guztiarekin etorri ginen hona bizitzera, eta orduantxe hasi zen gure kalbarioa.

Litxarkeriak saltzen dituzten makina horietako bat jarri zuten auzoan. Eta horrekin lotuta, egun santu guztia bertan igarotzen duen gazte-talde bat. Baina ez da gazte-talde normala. Euren gurasoek beste aldera begiratzen duten bitartean –non dago zuen seme/alaba nerabea etxean ez dagoenean?– makinaren inguruan orduak pasatzen dituzte porroak erretzen eta iskanbila sortzen. Bitartean, auzokideek garrasiak, pixak eta zinkinkeria, baloikadak, motor soinuak, petardoak, lotsagabekeriak, ea. aguantatu behar ditugu. Egunero. Gau eta egun. Etxeetako balkoietan ere sartzen dira eta! Hori jasanezina da.

Behin baino gehiagotan jo dugu Udalera eta Udaltzaingora laguntza eske eta

han batzuk –ez denek– borondate ona eta kolaborazioa erakutsi diguten arren ez dute ezertxo ere egin. Batzuk besteei pilota pasa, horretan bai iaioak.

Ezin omen da makina kendu, ezin omen da kristalezko atea kendu, motorrak edonon aparkatzea eta plazatik barrena ibiltzea ezin da ekidin, baloiarekin etxeetako kristaletan behin eta berriz jotzea saihestea oso zaila da, ... Udaltzainak ez dira bertatik pasatzen –ez ikustea errazena baita– eta gaueko istiluak erantzainen arazoa omen dira. Bitartean gu egoera berean.

Eta gainera Udalean diotenez, arazoa ez omen da makinarena, erabiltzaileena baizik.

Baina ez gara hain inuzenteak. Zeinek ez daki horrelako makinaren inguruan horrelako arazoak sortzen direla?

Nola izan liteke Udalak –ez dakit oraingoak ala aurrekoak– baimena ematea eta ondorioak ez aurreikustea? Eta arazo larria sortu dela ikusi arren, neurririk ez hartzea? Erabakiak hartu eta baimenak ematen dituztenek nahiko lukete horrelako makina bat euren etxe atarian? Jar dezatela ba!

Gauzak horrela, zergatik ez dute putetxe bat jartzeko baimenik ematen? Kasu horretan ere arazoa ez litzateke negozioarena izango, erabiltzaileena baizik. Eta ziur nago auzokook askoz ere arazo gutxiago izango genituzkeela oraingo bezeroekin baino. ■ **Nazkatuta dagoen herritar bat**

Eskerrik asko hari topaketa aurrera aferatzen lagundu zenuten guztiei

Negu luzean eginiko lanaren emaitzak udaberrian erretzen dira. Etxeko bakardadean, sarritan, musika mataza korapilatsua, askatu ezinezkoa, izaten da. Kortxea, *clave de fa*, lau lau, *staccato*, *maestoso*... Musika amesgaizto harilkatzen da.

Baina zenbaitetan, mila koloreko hariarik bat egiten dute eta soinekorik ederrera sortzeko gai da. Halakoxe oparia izan genuen maiatzaren 11n Orion. Euskal Herriko hainbat txokotatik hurbildutako ikasle osaturiko hari orkestraren eskutik. 235 ikasle biolina, biola, biolontxeloa eta kontrabaxua joz. Musikariak ez dira, ordea, sarritan laguntzailerik gabe mugitzen eta irakasleak zein gurasoak izan zituzten alboan.

Soinekoak egiteko hariak gain, botoiak eta bestelakoak ere behar direnez,

Ikastetxeek datozen bi asteetan egingo dituzte beren jaiak

Zaraguetakoak izango dira beren festa egiten lehenak, eskolan bertan, ekainaren leian, larunbatarekin, eta astebete beranduago iritsiko da Ikastolako txanda, ekainaren 9an, igandearekin, Karelana

Ohikoak izaten dira txoko guztietan ikastetxeetako jaialdi eta festak urteko garai honetan.

Ikasturtea bukaerara iristen doan bezala egiten dituzte beren festak eta denarikoko ekintzak izaten dituzte.

Zaraguetako Herri Eskolakoak izango dira ikastetxeko jaialdia egiten goiztiarrenak aurten. Eskolakoek ekainaren leian, larunbatarekin egingo dute beren festa. Goizeko 11:00etan hasiko dira ikasleen emanaldiarekin. Horretarako irakasleen laguntza izaten dute eta aurreko egunetan jaialdian egin beharrekoarekin buru-belarri dabilta ikasleak. Gai nontzekoa gurasoek antolatzen dute. Ikasleek ikuskizuna bukatu eta bazkaldu egingo dute segidan eta haien atzetik bertaraten diren gurasoek eta irakasleek. Arratsaldean bestelako tailerrak eta ekintzak izaten dira. Aurten, eskolaz kanpoko orduetan judoan jardun duten ikasleen erakustaldia izango da arratsaldean.

Ekainaren 9an, igandearekin, Orioko Herri Ikastolako txanda izango da. Goizerako egitaraua osatu dute eta Marisa Aranburu irakaslea omenduko dute bertan, 25 urteko lana eskertuz. Goizean 10:30ean ttuntturroak ibiliko dira kalez kale eta 10:50ean txalapartarien deiarekin hasiko da jaialdia kiroldegian. HHHkoek udaberria izango dute beren ikuskizuneko gaia. Segidan LHkoek itsasoaren inguruko emanaldia eskainiko dute. Guztia bukatzean, 12:30 inguruan, haurrentzako egingo dute ikastola aurreko plazan, gurasoek egindako tortilla eta txorizo egosiarekin.



Ikasleek dantzekin osatutako ikuskizunak egingo dituzte jaialdietan. KARKARA ETA ZARAGUETA

Kaleko zarata aztertu dute aurten Orioko ikasleek Agenda 21 egitasmoan



Zarata neurgailuak jartzea proposatu dute.

Udaletxean elkartu ziren ikastetxeetako haurrak eta Orioko alkatea gaiari buruz jarduteko horretarako propio egin zuten udalbatzar berezian. Iritziak trukatu eta konpromisoak hartu zituzten

Orioko bi ikastetxeetako haurrak alkatearekin bildu ziren maiatzaren 10ean egindako udalbatzarrean. Bertan Agenda 21 egitasmoari dagozkion arazoez aritu ziren hizketan.

2005. urtetik hona Orioko ikastetxe guztiek hartzen dute parte Eskolako Agenda 21 heziketa-programan. Ikastetxeetan urtero-urtero herriaren egoera aztertzen dute gai zehatz baten diagnostikoa egiteko.

Aurtengo ikasturtean herriko zarataren egoerari buruz aritu dira hausnartzen, ikasgelan azalpenak jasoz eta herriko kaleetan neurketak eginez.

Behin lanketa egin eta gero, Orion aurkitutako arazoak konpontzeko proposamenak egin dizkiete udal ordezkariak. Hala, ikastetxe bakoitzeko ikasle ordezkariak udaletxean izan ziren erabakiak hartzeko prozesua bertatik bertara eza-gutzeko asmotan. Bertan, ikasleek beren ekarpenak jarri zituzten mahai gainean.

Ikasleen proposamenei erantzuna eman zien Beñat Solaberrieta alkatea eta Udalak etorkizunera begira dituen proiektuak azaldu zituen. Modu berean, ikasleek herriko egoera hobetzearen alde hartzen dituzten konpromisoak aurkeztu zituzten.

Beste batzuen artean, hiru proposamen hauek egin zituzten: Orioko kaleetan zarata neurtzeko makinak jartzea, auto eta motoen abiadura motelteko neurriak hartzea eta Orioko bidegorri sarea osatzea.

Proiektua garatu ahal izateko, hezkuntza-komunitatearen eta Udalaren arteko harremana eta komunikazioa indartzeko bilerak egin dituzte ikasturtean zehar.

Etorkizunearan garapen iraunkorraren aldeko apustua indartu eta Udala eta hezkuntza-komunitatearen arteko harremana sendotzeko neurriak hartuko dituzte bi aldeek.

LABUR

Kultura

Sorgin gaua antolatze biler

Urtero ekainaren 23an dantza emanaldia egiten du Harribilek San Juan berde eguna dela-eta. Emanaldiaren aurretik sorgin dantza egiten dute eta kalejiran irteten dira herriko haurrekin batera. Horren harira, maiatzaren 31n, arratsaldeko 18:30erako bilera deialdia egin dute Harribilekoek. Kosta Tailerrean elkartuko dira LH2tik gorako haurrekin eta han entseatzeko egunak zehaztuko dituzte.

Ingurumena

Ontziak jasotzeko aukera oraindik

Udaletxean eskuragarri daude oraindik biohondakinak -hondakin organikoak- birziklatzeko plastikozko ontzi marroiak. Ontzi horietakoa jaso nahi duten herritarrek udaletxera jo besterik ez dute, eta han bertan eskatu. Familia bakoitzeko ontzi bana eskura daiteke, doan. Udalak orain dela hilabete batzuk martxan jarri zuten *Ez da marroia*. *Birziklatu behar da* kanpainaren barruan hasi ziren ontzi marroiak banatzen eta nahikoa harrera ona izan zuten arren, oraindik ontzia jaso ez duten familia oriotar ugari dago.

Udaleko kontuak

Udako lanetarako aukeratuak

Aukeratu dituzte uda honetarako udal-langileak. Kanpinerako zaindariak Miren Salsamendi, Aritz Jauregi, Jose Angel Urbieto eta Lander Sarasola izango dira. Kanpineko komunak garbitzeko, Mikel Jon iribar, Josune Zabaleta, Ainara Agirre-sarobe, Imanol Peña eta Oihane Agirre aukeratu dituzte. Hondartzako kabinak garbitzeko Xabier Elizondo eta M. Ester Regidor kontratatuko dituzte. Itziar Irastorza eta Mikel Narciso izango dira udaltzain laguntzaileak eta, bukatzeko, Aitor Jaio izango da txu-txu treneko gidaria.



Kaanache, Agirresarobe, Huegun, Fabra -San Miguleleko ordezkaria- eta Mendi topa egiten azoka aurkezteko prentsaurrekoan. KARKARA

Orioko 1. Garagardo Azoka antolatu du arraun elkarteak

Azokak 200-250 lagunentzako tokia izango du, baina tente lasai egoteko gunea ere jarriko dute, iraungo duen hiru egunetan. Musika eta futbol partidak izango dira, besteak beste, ekitaldien artean

Maiatzaren 24, 25 eta 26rako antolatu dute azoka eta bi helbururekin egingo da: herria girotzea eta OAEren diru sarrerak indartzea. Horretarako ekitaldi ugari izango da azokak iraungo dituen hiru egunetan.

Garagardo azoka guztiek eskaintzen duten aukera antzekoa izango da Orion ere. Prezioak, ordea, merkeagoak izaten saiatu dira. Litro erdiko txarroak izango dira zerbeza edateko eta horiek 2 eurotan eskuratu ahal izango dira. Txarroak betetzeko edariek, berriz, bi prezio izango dituzte: 2,5 euro garagardo arruntek eta 3,5 euro bereziek. Jateko, bestalde, txerri ukondoa izango da 9 euroren truke, eta bi saltxitxa patata pure eta guzti jateko 4 euro ordaindu beharko dira.

San Miguel etxearen laguntza izan du Orio Arraunketa Elkarteak azoka antolatzerakoan. Huegunek esan duenez, *San Miguel arraun munduko liga indartsuenaren babesle izanda, haiengana laguntza eske joatea iruditu zitzaigun bi-*

dezkoena; haiek, gainera, esku zabalik hartu zuten proposamena.

Herriko tabernei ordutegia luzatzeko baimena eman die Orioko Udalak, eta azokak goizaldeko ordubatean itxiko du ostiralean eta larunbatean. Huegunen arabera, *ezinbestean hartu ditugu kontuan herriko taberna eta negoziok.*

Egitarauzabala

Irekiera ekitaldia maiatzaren 24an, 19:00etan egingo da eta han bertan Imanol Agirretxek eta Oiana Blancok *Miro-tza* saria jasoko dute. Saria Antxon Mendizabal *Mendi* eskultoreak egina da. Taila figuratibo bat egin du propio Mendik eta arraunlariak besoak jasota ikusten dira, garaipenaren adierazgarri. Guztia arraun elkartearen mirotzak biltzen du, hura baita elkartearen ikurra. Beren kirol ibilbidea saritu nahi izan dute OAEkoek. Agirretxeren kasuan, Orio Arraunketa Elkarteko bazkidea da usurbildarra eta aurtengo denboraldi aparta saritu

nahi izan dute elkarteko kideek. Irekierarekin batera erraldoiak eta buruhan-diak ibiliko dira herriko kaleetan. Gauean, berriz, 22:00etan hasita, Gari eta Iñaki trikitilariak eta *Arrutiko Intxaurrek* bakarlarria izango dira.

Larunbatean, hilaren 25ean, korrika apustua izango da 11:30ean hasita, plazan. Hossain Kaanache da erronkaren bultzatzaile nagusia eta 10 lagunez osatutako bi taldek korrika 10 kilometro osatu beharko dituzte. Plazari hiru itzuli eta erdi eman beharko dizkio korrikalari bakoitzak, kilometro bat osatuz, eta errelebo batetik besterako tartean apustuak egiteko aukera izango dute erronka ikustera hurbiltzen direnek.

Horrez gainera, arratasaldean, 17:00etan hasita, aulki mugikorreko estropadak izango dira. Iluntzean, berriz, Champions League-ko finala emango dute azokan horretarako propio jarriko duten pantaila erraldoian. Partida bukatutakoan, Fun&Go taldearekin erromeria izango da. Igandean bukatuko da azoka Reala eta Real Madriden arteko norgehiagoka bukatzean. Lehia hori ere pantaila erraldoian emango dute, 20:00etatik aurrera.

Festa giroan egin zen Berriak eta Karkarak antolatutako lasterketa

Eguraldiak lagundu ez zuen arren, partaide dezente izan zen lasterketan. Txikienek zein helduek ilusioz bete zituzten ibilbideko kilometroak, baita albotik begira zeudenek ere



Arnas betean igo ziren korrikalari asko Iturbideko aldapan gora. KARKARA

Lehenengo aldiz bikotetako lasterketa mistoa antolatu genuen KARKARAK eta Berriak, maiatzaren 18an, Orion.

Goizean goizetik zeruari begira jarrita izan ginen antolatzaileok. Baina, euriak euri, arratsaldeko 16:30ean eman genion irteera txikien lasterketari. Beroketatik urduri nabaritzen ziren haurrak, baina irteera eman eta gero uxatu zituzten nerbio guztiak. Aurretik bi kilometro eta erdi zituzten egiteko eta baita egin ere. Guztira 40 inguru korrikalari gaztetxo izan ziren korrika eta domina bana jaso zuten helmugaratzen ziren heinean.

Atzetik helduen txanda izan zen. Guztira 42 bikote izan ziren irteeran. Batzuek lehiaketa balitz bezala, beste batzuk, berriz, ondo pasa eta KARKARA eta Berriari babesa emateko intentzioarekin, baina guztiak iritsi ziren helmugara. Iristen lehenak Nerea Amilibia -igandean Pagoetako mendi lasterketa irabazi zuen- eta Iosu Larrarte izan ziren, eta guk denborarik hartu ez genuen arren, haiek esan ziguten zenbat denbora pasa zuten 4,5 kilometroak egiten: 15 minutu eta 55 segundo. Atzetik barrikotean indarrak hartu zituzten korrikalariak.

LABUR

Saskibaloia

ZASTeko juniorrak ere txapelkun URSA-Oriok partaidetzako liga irabazi eta gero, ZASTeko juniorren taldea sailkatu zen Gipuzkoako Txapelketarako finalera. Bertan zazpi oriotar izan ziren txapelketa irabazteko lehian. Maiatzaren 11n jokatu zuten finala Donostiako Aieten eta Tolosako taldeari irabaztea lortu zuten 38-54. Bukarako emaitzen alde handia izan arren, partida estua eta borrokatua jokatu behar izan zuten txapela irabazteko.

Futbola

Makatzaren agurra

Orioko Futbol Taldeak presidente berria aurkitu beharko du datorren denboraldirako. J. A. Makazaga *Makatzak* presidente kargua utziko du denboraldi honen bukeran bere zuzendaritza taldearekin batera, 17 urtez Orioko Futbol Taldearen kudeaketa bere egin eta gero. Ekainaren 7an egingo dute batzar orokorra, denboraldi bukarako bazkariaren bezperan, eta, Makatzak esan duenez, momentuz zuzendaritzarako hautagai talde bat bada. Urte askoan egindako lanaren ondoren, atsean hartuko du Makatzak.

Arrauna

Trainerilletan brontzea

Bukarera iritsi da dagoeneko Gipuzkoako trainerilla denboraldia. Ez dira bateletan bezain fin ibili arraunlari oriotarrak eta Gipuzkoako txapelketan eta ligan 4. izan dira senior neskek eta 3. senior mutilak. Maiatzaren 25ean eta 26an jokatu dute Euskadiko Trainerillen Txapelketa Hondarribian. Hango emaitzen arabera, ekainaren 1ean eta 2an Espainiako Txapelketa izango dute ala ez. Txapelketa hori Moaña, Galizian, jokatu da. Hasierra batean Orio ez da bertan izango, nahiz eta sailkatu, arrazoi ekonomikoak medio.

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
feruranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69
Bikoa kalea, 4. 20.800 ZARAUTZ
URBIDE o.s.
ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA BAINU ERAKUSKETA
Fotoprintak, argazkiak, 3er.

XABIER URRETABIZKAIA
- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak
60 urte zerbitzua ematen
943 83 17 74
Arrantale, 31 20810 ORIO

ASADOR XIXARIO
Euzko Gudariaren Kalea, 2
Tel. 943 830119 - ORIO

“Taldean dugun giro ona da gure indargune nagusiena”

Itxaso Azkonobieta eta Aritz Hernandez

Arraunlariak

Camargon, Kantabrian, jokatu da aurtengo Espainiako Batel Txapelketa eta Orio Arraunketa Elkarteak bi bandera ekarri zituen etxera: emakumezko infantil-kadete mailakoa eta gizonezko kadete mailakoa.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Nesketan Mireia Uranga, Eider Zubelzu, Itxaso Azkonobieta, Leire Begiristain eta Ane Carrera aritu ziren lehian eta mutiletan, berriz, Mikel Uranga, Aritz Hernandez, Eneko Itxaso, Martxel Aldai eta Jon Arriola. Itxaso eta Aritzek kontatu dizkigute txapelketako eta denboraldiko gorabeherak aulki mugikorreko entrenamenduan hasi aurretik.

Emitza onak lortu dituzue aurren, ezta?

Itxaso: Gu oso gustura ibili gara, baina emitza hauek lortu ditugu gogor entrenatu dugulako.

Aritz: Egunero klubera etorri eta egin-dako esfortzua erakusten du horrek. Horrelako instalazioak izateak ere motibatzen egiten gaitu. Inbertitu den dirua ere emaitzen parte da.

Elkarlanak ere ba al du garrantzia?

A: Konfiantza oso garrantzitsua da. Entrenatzen gustura aritu arren, momentu txarretan bata bestea presionatu ordez elkar laguntzea onerako da eta elkar animatzen dugu.

I: Une gogorak, presioa edo hutsegiteak tarteko umore txarra izanez gero, elkarrekin hobeto ateratzen gara okerretatik?

Zein dira zuen ahulguneak?

I: Oso azkar urduritzen gara eta oraindik ez dakigu nerbioak kontrolatzen.

A: Presioak asko eragiten digu. Jokoa gu ari gare arren, entrenatzaileak gainean izateak zeresan handia du.

Eta indarguneak?

I: Taldea. Mutil eta neska oso ongi konpontzen gara eta lagun giroan lan egiteak lagundu egiten du.

A: Estropada batera joan eta elkarri adarra jotzen edo barreka arituta, ahaztu egiten zaigu zertara goazen ere, eta giro on horrek lasaitzeko balio du. Gero estropadako unean bertan kontzentratzen gara. Askotan etxean beste denbora



KARKARA ETA J.M. OLASAGASTI

pasatzen dugu klubean eta entrenatzaileekin ere ongi konpontzen gara.

Entrenatzen, beraz, denbora asko pasatzen duzue.

I: Entrenamenduak gogorrakizaten dira. Ligan, beharbada, ez horrenbeste, baina txapelketak gerturatu ahala etxera nekatuago iristen gara.

A: Txapelketen aurretik erritmoa pixka bat jaitsi eta ezer egin ez dugula iruditu arren, gorputzak nabaritzen du. Urte guztian egurra eman eta hobeto gabiltzala ikusteak konfiantza ematen du.

Espainiako txapelketa zer moduzkoa izan zen?

A: Ondo ibili ginen. Palka ez genion jarri hasieran haize gutxi zegoelako, eta gainontzeko batelek jarri egin zuten. Gero olatuak atera eta bigarren zibogatik aurrera ura sartzen hasi zitzaigun. Baina estropada aurretik egin genuen eta bukaerara arte eustea lortu genuen.

“Konfiantza oso garrantzitsua da. Entrenatzen gustura aritu arren momentu txarretan bata bestea presionatu ordez elkar laguntzea onerako da.”

“Espainiako txapelketarako esperantza ez da galdu behar eta hortarako ere entrenatzen ari gara. Gutxienez podiumera igotzeak poztuko gintuzke”

I: Zibogan azkenak sartu ginen eta enbarkazio bat atetik geunden, baina patroia animatzen hasi, arraunketa hartu eta azken 200 metroan irabazi genuen. Gipuzkoan ez genuen irabazi, Euskadikoa irabazitakoan oso gustura gelditu ginen eta Espainiakoa irabazterik inork ez zuen espero; sorpresa izan zen gurea.

Bateletako denbordia bukatuta, zein asmo aurrerantzarako?

I: Orain aulki mugikorrean hasi behar. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabaztea da gure nahia, baina Espainiakorako esperantza ez da galdu behar eta horretarako ere entrenatzen ari gara. Gutxienez podiumera igotzeak poztuko gintuzke.

A: Asteburuan Bordelen izan gara eta emitza onak lortu ditugu –lehen eta bigarren postuak–, bai bateletan ibili gare-nok baita ibili gabekoek ere. Hor ikusi da gogoan jartzen duenak lortzen duela.



KARKARA

“Belarra segarekin ebakitzen genuen lehen, makinarekin orain”

Joxe Mari eta Luis Iburguren

Baserritarrak

Denboraldi batez gorde eta gero, ganaduak jateko erabiltzen da belar-meta, belar onduz edo lastoz osatutako piloa. Gaur egun makinekin egindako belar-bolekin ordezkatu arren, garai batean nola egiten zuten erakutsi zuten Asentzio ferian.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Iburguren anaiak eta Patxi Alkain aritu ziren lanean jende aurrean Asentzio ferian. Izekiondo baserriko mandioan zeukaten iaz lehortutako belarra idi parearekin eraman, eta meta egin zuten antzinako eran. Izekiondora gerturatu eta baserriko lau anaiak lanean aurkitu ditugu, jatenetan. Joxe Mari eta Luisek tartea egin eta gurekin hitz egin bitartean, lanean jarraitu dute beste biek silorako belarra bildu eta neguan ganaduentzako izateko.

Jendeak garai bateko lanak ezagutzen ez dituelako egiten dira erakustaldiak?

Joxe Mari: Jende gazteak gutxi ezagutzen du. Lehen belar-meta asko egiten zen, orain, ordea, ez. Guk egiten dugu eta auzoan beste bateko edo bestek. Belar metak nola egin orain dela 30-40 urte erakutsi izan bagenu ez luke inork begiratu ere egingo. Denek etxean egiten zuten. Luis: Gutxitzen ari dena erakutsi egin behar da, bestela ahaztu egingo da-eta. Makinekin berek ere egiten dutela esango dute, baina lehengo era zaharrean egin eta jende mordoak bildu zen.

J.M.: Gaur egun, lehengo eran, beragainean dela metak egiten dituen gazteentzako bat Ostolaza baserrikoa da.

Jendeak estimatzen du baserriko lana?

J.M.: Festetako erakustaldietan bai, baina bestela... Gure zelaia garbitzen zenbat denbora behar den ez daki askok. Orain silorako biltzen ari gara, neguan ganaduentzako izateko, baina gaur egun siloa betetzen duenik ere gutxi da, gehienek bolak hartzen dituzte edo makinekin kargatu. Hori dena aurrerapena da eta gehienek baliatzen dute, noski.

“Belar metak nola egin orain dela 30-40 urte erakutsi izan bagenu ez luke inork begiratu ere egingo, denek etxean egiten baitzuten”

“Gauko ihintzak ontzen dagoen belarrari ez dio onik egiten, beraz, zabalean dagoena bildu eta goizean berriz zabaldu izan dugu”

Belar-metak egiteko modua aldatu da?

L: Aldaketa bakarra lehen segarekin ebakitzen genuela eta orain makinarekin; gainontzean berdin-berdin. Belarrari buelta ere eskuarearekin ematen diogu guk, askok hori ere makinarekin egiten dute, baita bildu eta paketatu ere. J.M.: Urte batzuetan belar gutxiago ondu da, baina orain ostera hasi da. Belar ondua ona da ganaduentzako. Gu ganaduzale txikiak gara eta ebaki izan ezik gainontzekoa eskuz egiten dugu orain ere.

Teknika, beraz, ez zaizue ahaztu.

J.M.: Makinarekin ebaki ondoren, astindu eta zabaldu egiten dugu; gero, eguraldi ona bada, eskuarearekin jiratu. Gauko ihintzak ontzen dagoen belarrari ez dio onik egiten, beraz, zabalean dagoena bildu izan dugu eta goizean berriz zabaldu, orduan jartzen da ona eta gero, berriz, meta egin.

L: Lehengo era zaharrena egiten dugu. Masta izaten dugu zelaian eta Joxe Mari, bildutako belarraren gainean jartzen da sardearekin, eta ni behean meta egiten hark botatuko belarrarekin. Baina etxeko lau anaiok ibiltzen gara lanean.

Sekreturik bada metak ondo egiteko?

L: Ez. Aurrenekoa ez da ongi egiten, baina jardunaren poderioz ikasi egiten da, dakienik ez da jaiotzen. Gure aita zena jarduten zen lehen etxean eta hark utzitakoan ni. Ezinak agindu arte guk ere jarraituko dugu. Oraingoan, sail bat behar bada makinarekin egingo dugu, baina gainontzekoa lehengo erara.



Apirilaren 9an egin zuten eztabaida foroa Orion. UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

Hondakinen inguruko herri foroa izango da maiatzaren 29an

Urola Kostako Udal Elkarteak zaborra sortzeko prebentzio plana garatzen ari da elkartearen barruko herrietan. Plana bigarren fasean dago eta horren harira antolatu dute ekimena

Urola Kostako Udal Elkarteak hondakinak sortzeko prebentzio plana jarri zuen martxan duela hilabete batzuk. Hiru faseetan banatu zuten plana.

Behin diagnosiak eginda, bigarren fasean sartu da hondakinak sortzeko prebentzio plana. Urola Kostako Udal Elkarteak behin-behineko Ekintza Plana idatzi du eta orain herritarren parte-hartzeari eman diete garrantzia. Horretarako, eztabaidarako foroak egingo dituzte mankomunitateko herrietan. Foroetan behin-behineko planean jasotako ekintzak eztabaidatu eta herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte. Apirilaren 9an egin zen foroa Orion eta Aian datorren maiatzaren 29an izango da, Kultur Etxean, iluntzeko 19:00etatik 20:30era.

Herritarren parte hartzea sustatu

nahi izan du Urola Kostako Udal Elkarteak, izan ere eztabaida foroetan egindako ekarpenekin idatziko du behin betiko plana.

Lehenengo fasean herri bakoitzeko diagnostikoa egin zuten mankomunitatekoek. Horretarako hainbat datu bildu eta aztertu zituzten, hala nola, orain arte Udalek egindako hondakinen kudeaketak, herri bakoitzak sortzen duen hondakin kopurua, frakzioak, zaborren kudeaketak sortutako gastuak...

Ontziratuzaitz kanpaina bukatuta

Bukatu da duela sei hilabete mankomunitateak martxan jarritako *Ontziratuzaitz* kanpaina. Aian ordutik hona 503 erosketa ontziekin egin dira, kopuru totalaren ia erdia.

LABUR

Ingurumena

Aiako VI. auto igoera

Datorren maiatzaren 25ean izango da Andatzatik Aiako VI. auto igoera. Gauzak horrela trafikoa moztuta izango da ibilgailu guztientzat GI-3710 errepidea Andatza auzotik Aiara lasterketa garaian. Bidea eguerdiko 14:00etan moztuko dute antolatzaileek eta arratsaldeko 18:00etan irekiko da berriz.

Jaia

Koadrilen eguna ekainaren 2an

Pagoeta egunarekin batera ospatzen da koadrilen eguna Aian. Aurten ekainaren 2an izango da eta 09:30ean, plazatik abiatuta, Pagoetara igoera egingo dute herritarrek elkarrekin. Atzetik, eguerdiko 14:00etan 220 lagunentzako bazkaria izango da. Horretarako maiatzaren 31 aurretik eman behar da izena Kultur Etxean. Txartelak hiru euroko prezioan salduko dira eta horrekin paella eta edariak sartzen dira. Bazkalondoan koadrilen arteko jolasak eta erromeria izango dira. Guztia ondo joateko, koadrila bakoitzak 2 arduradun izendatu beharko ditu mahaiak jartzen laguntzeko.

Udaleko kontuak

Udan brigadarako lanpostuak

Udarako bi lanposturen zozketa egin dute eta hurrenez hurren honakoak dira aukeratuak: Juan Luis Itxaso, Juan Antonio Aldanondo, Enrique Martinez, Gorka Olasagasti, Cristina Sanchez, Mikel Iruretagoiena, Igor Esnal, Garikoitz Aizpuru, Iker Ostolaza eta Aitzpea Ubegun. Kontratuak zozketaren hurrenkeraren arabera eskainiko dituzte eta kontratuok bukatuta zerrenda baliogabetuko dute.

VI. auto igoera Andatzatik Aiara

Heldu da eguna. Datorren larunbatean, maiatzak 25, VI. Andatzatik Aiarako auto igoera izango dugu. Goiz-goiz jaiki eta auzotarrak elkartuko gara, denon artean egun ona pasatzeko. Batzuk lanean, besteak ikusten, denon artean auzoan ibiliko den jendetzari kotxeak ikusiz ahal den errazena ibil daitezen laguntzen. Jende berria ezagutu eta auzoajende berri horri ezagutzera eman, gure adeitasun eta laguntzeko intentzio onarekin.

Kotxeak ikusi ondoren, eguerdian ikusleak bide bazterretara joaten dira, arratsaldeko lasterketa zuzenean ikus-teko.

Bitartean auzotarrak ikusle horiek bide bazterrean ondo dauden edo ez be-

giratzen ibiltzen gara, ezer gerta ez dadin. Baita bezperan jarritako zintak eta hesiak ondo daudela begiratzen ere. Dena ondo dagoela ziurtatu ondoren, karrera hasteko prest izaten da.

Lasterketa hasitakoan dena ondo joatea gidariaren eta haien kotxeen eskutandago.

Lasterketa bukatu ondoren, denok hasten gara berriz ere lanean, zintak eta hesiak bildu, zelaietan eta bazterretan utzitako zaborra jaso...

Iluntze aldera sari banaketa egiten da, gidari guztiak beren kotxeekin auzora hurbiltzen dira, eta, haiekin batera, lagunak eta ikusleak irabazlea zein izan den ikustera. Batzuk gustuko duten kotxe edo gidariekin argazkia egiteko, haiekin hitz egiteko... aprobetxatzen dute.

Ondoren auzoa pixkanaka-pixkanaka husten joaten da: lehendabizi jendea hasten da joaten, eta, atzetik, pilotoak hasten dira poliki-poliki etxera joateko beren kotxeak jasotzen. Piloto gehienak gustura ibiltzen dira, eta hurrengo urte-etan errepikatu egiten dute.

Dena bukatutakoan, auzotar batzuk etxera joaten dira, lasaitasun pixka baten bila, nahiz eta gustura ibili, egun luzea izaten da-eta.

Beste batzuk, berriz, ondo merezitako afari batean elkartzen gara. Hemen beti bezala eguneko anekdotak eta istorioak kontatzen ibiltzen gara.

Aurreko urtetako lasterketetan dena ondo irten da, eta aurten hala gertatuko delakoan gaude, denon laguntza eta borondate ona lagun dugula.



Txokoak eta jendea Aiarak Gipuzkoako txapeldun

Eskola Kirola ekimenaren barruan, pasa den maiatzaren 18an pale-tako finalak jokatu zituzten Oiartzungo Madalensoro pilotalekuan. Kadete mailan, Maddi eta June Aldai ahizpak nagusitu ziren Altzo-ko nesken aurka 25-14, Diana Lopez ordezkotutela. Argazkian do-minak eta kopa jasotzen ageri dira aiarrak. Zorionak!



21. Landa eskola eta kapera

Orio eta Igeldo arteko muga inguruko ordeketan, antzina galsoro eta artasoro izandako etan, dago gaur egun bi etxebizitza dituen Lusarbeerdi baserria. Baserria ez ezik eskola eta kapera bezala erabili izan den etxe txikia ere badago. Izan ere, XX. mende erdian landa eskola egon zen Lusarbeerdin eta eraikin hartan kapera ere moldatu zuten inguruko bizilagunek igandetako meza han entzuteko.

Lusarberen lehen aipamen historikoa 1178koa da Iruñeko gotzaindegiak Orion zituen ondasunen artean baitzegoen. 1141ean Nafarroako Gartzia V.ak eman zuen nekazaritza ustiapen eremua eta gero Zarauzko jauna egin zen jabe. Haren semeak Orioko Udalari saldu zion 1550ean eta Udalak alokairuan eman. 1562an, ordea, Lusarbeko eremua banatu eta bi baserri eraiki zituzten.

Lusarbeerdiko maizterrek, errenta ordaintzeaz gain, herri-lurretako ganaduak, zuhaitzak, karobiak eta zuhaitz mintegiak ere zaindu behar zituzten.

1719an gudaroste frantziarraren inbasioan frantziarren eta mikeleteen harripaketak jasan zituzten. XVIII. mende amaiera eta XIX. aren hasierako gudek

eragindako zorrak kitatzeko Udalak bere ondasunak saldu zituen, tartean Lusarbeerdi. Baina ez ziren haiek azken gerrak izan eta azken Karlistaldian gudaroste liberalak kalteak eragin zituen baserrian, esaterako sagastia txikitu.

Duela 80 urte maizterrak baserria erosi, bi etxetan banatu eta bat anaiari eman zion errentan. Gerora bakoitza etxe baten jabe egin zen eta ondorengok jarraitzen dute Lusarbeerdin.

Garai batean esne-behiak gobernatzen zituzten eta esnea Donostian banatu. Orain, ordea, baserriko lanak amaituta etxerako baratzea, ardiak eta zaldiak dituzte.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN |

azkue
Tf: 943 13 04 38

Allianz
Marigre Zaldua
aseguru agentea
Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delaoruz.pa@allianz.es

SARASUA ERRETEGIA
Plater bereziak:
-Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak
Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32



Zertan da euskarazko prentsa?

KARKARAK eta Berriak elkarrekin antolatutako *Zaindu maite duzun hori* kanpainaren baitan, euskal komunikabideen egoera eta etorkizunaren inguruko mahai inguruan izan zen maiatzaren 16an, ostegunarekin. Rikardo Uzkudunen gidaritzapean, norberak bere ikuspuntutik jorratu zuen gaia: Jabier Zabaletak -KARKARAREN sortzaileetako bat eta Orioko Udaleko euskara teknikariak-, Onintza Letek -Oriora bizitzera etorritako Urola Kostako Hitzako zuzendariordeak- eta Iñaki Petxarromanek -Berriako zuzendariordeak-. Jende gutxi bertaratu zen eta etxe-giro goxoan aritu ziren denak. 19:00etan hasita, ordu eta erdi pasatxo iraun zuen mahai inguruak, moderatzaileak egindako eta bertaratutako herritarrek plazaratutako galderen artean. Mahai inguruak emandakoaren mamia jaso nahi izan dugu lerrootan, besteak beste, 25 urte egitera doan KARKARAREN eta 10 urte egitear den Berriaren etorkizunaren haria nondik nora doan jakin dezazuen.

Nola ikusten duzue euskal prentsa zuen lan-alorretik, zuen eskarmentutik? Zein dira zuen ahulguneak eta zein zuen indarguneak?

Onintza Lete: 11 herrik osatzen dute Urola Kostako Hitzza. Guztira 10 lagun ari gara bertan lanean, komertziala eta kudeatzailea kontuan hartuta. Gainera, ko beste Hitzaren edizioekin alderatuta, bolumenari dagokionez, antzerako gabilta Urola Kostan. Bi kasutan, ordea, egoera ekonomikoa larria dela eta, bi eskualdek bat egin behar izan dute elkarrekin Hitzza bat sortzeko: Hitzza bakar batean batu dira Busturialdekoak, Mutrikukoak eta Lea-Artibaikoak; eta Oarsobidasoko Hitzza sortu dute Oarsoaldean eta Bidasoaldean. Horrez gain, aste-kari bilakatu dira beste batzuk, eta Interneten jarri dute indarra.

Urola Kostan ere egoera larrian gaude. Orain arte paperari eman izan diogu garrantzia, baina Internet ere bere bidea egiten ari da azken urteotan eta, hortaz, borroka batean gabilta. Izan ere, lehen-goak adina gara langileak eta, paperaz gain webgunea elikatu behar dugu. Lan asko daukagu eta lan-karga handia daukagu langileok. Oreka aurkitu nahian gabilta.

Bestalde, asteartetik ostiralera bitartean ateratzen dugu paperezko Hitzza. Ia 10 urte dauzkagu eta ibilbide horretan egin dugu bidea eta nahikoa egonkortuta gaude.

Dena den, harpidetza jaisten ari da eta publizitatea ere beheraka doa. Diru-laguntzak ere urtearen arabera izaten dira; emango digutenaren zain egoten gara. Hori guztia kontuan hartuta, euskarazko herri aldizkariekin batera egoerari nola aurre egin hausnartzen ari gara taldean. Denok bateratuta zerbait egin dezakegun aztertzen ari gara. Indarrak batu eta egoerari aurre egiteko gai garen ikusi nahi dugu.

Gainontzean, gogor ari gara egunero-egunero lanean. Produktu ona eta duina eskaini behar dugu. Euskara hutsean izanagatik, arazo ekonomikoa izanagatik eta lan karga handia badugu ere, herriarrei eskaini nahi diegunak kalitatezkoa eta ona izan behar duela uste dugu.



Iñaki Petxarroman: Kezkaz bizi dugu egoera, baina ilusio puntuarekin, aldi berean. Azken finean, aldaketa garaian gaude: komunikazioaren munduan gauzak oso azkar ari dira aldatzen. Interneten euskarria bete-bete sartu zaigu eta nolabaiteko berrasmatez batean gaude.

Egoera ekonomikoa aldetik, egia da larri gaudela. Lauzpabost urte daramatzaguz langileen soldatak igo gabe. Azkeneko urtean, gainera, jaitsi egin behar izan ditugu, kontuan hartuta, Berria bezalako proiektuetan soldatak berez ez direla oso handiak izaten. Kazetari lanak eskatzen duen duintasunaren mugan gaude; ezin gehiago emanda.

Baina ikuspegi historikotik begiratu, eta Berria proiektuak urte batzuk daramatzanez –nik neuk 20 urte daramatzat Egunkariatik eta Berriatik gertu–, egoera ez zaigu berria. Egunkaria sortuzen garaian gaur egun baino lan-baldintza askoz txarragoak genituen, batez beste; urtetik urtera hobetzen joan gara eta gaur egun nahikoa baldintza onak ditugu. Gogoratzen naiz, garai batean ez genuela jakiten aparteko soldatak kobratuko genituen ala ez. Gaur egun berriro gaude egoera horretan. Nolabaiteko zirkulu txar batean gaude. Duela 10 urteko egoera gaindituta geneukala uste genuen, baina euskararen egoeraren ataka horretan zaila da hori gainditzea.

Bestetik, gure ahulezia den hori –alegia, gure egitura txikia, soldata txikiak, baliabide gutxiarekin lan egiteko ohitura eta eskarmentua– bada, aldi berean, gure indargune nagusienetarikoa. Azken finean, guk ez daukagu salbatuko gaituen akziodun handi edota enpresa indartsu bat, larrialdi baten aurrean dirua sartzeko prest. Baina, milaka lagun ditugu laguntzeko prest: Berrialagunak, akziodunak zein harpidedunak eta, horretaz gain, gutxiarekin aurrera egiteko ohitura daukagu. Hori da etorkizunera begira, gure doain nagusienetako bat.

Pittinka-pittinka beherakako joera nabari da, hala ere; ez da oso pronuntziatua baina existitzen da: kioskoan, harpidetzan, eta, bereziki, publizitatean. Gero eta publizitate gutxiago fakturatzen dugu eta gero eta leku gutxiagotatik iristen zaigu. Salmentei eta harpidetzei dagokionez, nahikoa txukun eutsi diogu. Interneteko edizioak ez du horretan laguntzen; gero eta jende gehiagok jarraitzen du sareko Berria, eta ezinbestean nabaritzen da paperean pixkanka irakurleak galtzen ari garela.

Jabier Zabaleta: Hasteko, komentatu behar dut KARKARAREN gaur egungo egoeraren berri zehatzik ez daukadala; etxetik, lasai-lasai, beste ikuspegi batetik segitzen dut orain KARKARA, beste oriotar askoren moduan.

Orokorrean, zabaldu den irudi ezkorrrari kontrapuntua jarritz, duela 25 urte euskal prentsaren kontuan hasi ginenean eta KARKARA sortzen hasi ginenean, amestu ere ez genuen egiten gaur egungo egoera. Ez genuen pentsatu ere egingo egoera honetara iritsiko ginenik: eskualdean bertan, hamaboskaria da KARKARA, herri-aldizkari potentea dena; ia egunero banatzen den eskualdeko egunkaria daukagu; Euskal Herriko prentsa daukagu, Berria, potentea eta oso kalitate onekoa... izugarri aurreratu dugu. Horri ere balioa eman behar zaio.

Ez dugu daukaguna gutxietsi behar. Larre motzagoetatik gatoz

Egia da, krisi-gainbehera hau prentsa idatzian oraindik ere hutsune asko dauzkagula etorri zaigula: esate baterako, prentsa espezializatua bezalako esparrura ez gara ailegatu. Ez dago modari edota teknologiari buruzko aldizkaririk euskaraz. Gauza asko falta genituela etorri da hau eta seguru asko, gauza horiek ez ditugu ikusiko jada, Internetek goitik behera aldatu duelako dena eta beste bide bat hartuko dutelako.

Baina dena txarra ere ez da; alegia, Diario Vascok ere irakurle asko galdu ditu. Gure egoera panorama orokorrean kokatzen baldin badugu, euskarazko prentsak esparru askoz ere sendoagoa eta kompetitiboagoa dauka gaur egun, orain dela 20 urte amestu genezakeena baino. Horrekin geratuko nintzateke ni.

KARKARARI begira jarrita, papereko aldizkariari nahiko sendo eusten diola esango nuke. Estimazio handia zaio herrian eta komunitate bat osatzen jakin du bere inguruan KARKARAK. Hori ere gauza oso inportantetzat jotzen dut. Egia da Interneten ez genuela asmatu eta pentsatzen dut horri buelta batzuk ematea eskatzen duela. Hor badago ahulgune garrantzitsua. Horri erantzun egin behar zaio.

Baina, dena den, nik mezu positiboa eman nahi dut. Ez dugu daukaguna gutxietsi behar. Larre motzagoetatik gatoz.

Duela urte eta erdi inguru, herrietako euskarazko prentsa ez-publikoak Hekimen sortu zuen, administrazioaren aurrean indarrak elkartzeko. Euskarazko produktuek diru-laguntzekiko duen menpekotasun hori kontuan hartuta, zein harreman duzue administrazioarekin?

Petxarroman: Berria talde bezala eta euskalgintzako kide garen heinean, datorren egoeraren aurrean zenbat eta gehiago izan eta zenbat eta bateratuago izan edo jardun, askoz ere hobeto ekingo diogu aurrean daukagun erronkari.

Sektoreak batzea erabaki zuen, ahots bakarrez jarduteko. Gure ekuazioa garbia da: batera jardun behar dugu administrazioaren eta gizartearen aurrean. Administrazioaren aldetik batzuek besteak baino gehiago saritzeko joera edo gogoia egon liteke gainera.

Euskaraz aritzen garen herri ekimeneko komunikabideok ezinbesteko lana egiten dugu. Nahiz eta eremu pribatua jardun, zerbitzu publikoa eskaintzen dugu, informazioaren aldetik eta euskaraz aritzen garelako. Horrek, ezinbestez, lehentasunezko erantzuna eduki behar luke erakundearen aldetik eta askotan erantzun hori ez dugu ikusten. Badirudi beti eskean gabiltzala. Gure hizkuntzaren egoeraren paradoxa bat da: besamotzaren besoa. Ez garela iristen esanez jardun behar dugu beti, euskararen egoera ezagutuko ez bagenu bezala.

Egia da, oro har, apurrak banatzen ibiltzen direla, adminstrazioaren alde-

tik; behar genukeena baino askoz ere gutxiago ematen zaigu, eta ematen zaigun apur hori denon artean ahalik eta orekatuen eta justuen banatzea beharrezkoa da. Horretarako sortu zen Hekimen.

Berriari dagokionez, Jaurlaritzatik puska bat jasotzen dugula aitortu behar da, baina urtetik urtera gutxiago. Iaz %10eko jaitsiera egin ziguten. Diru-asko da hori guretzat. 700.000 euro galduko genituela aurreikusi genuen eta ariketa egin genuen eta gizartera jo dugu. Hor abiatu genuen Berrilaguna kanpaina. Hori egin izan ez bagenu, ateak ixteko moduko egoeran egongo ginatke. Hemen bagaude, euskaltzaleek emandako bultzadari esker da. Horiek dira datozen urteotako gure oinarri nagusia.

Euskaraz aritzen garen herri ekimeneko komunikabideok ezinbesteko lana egiten dugu. Nahiz eta eremu pribatua jardun, zerbitzu publikoa eskaintzen dugu, informazioaren aldetik eta euskaraz aritzen garelako

Lete: Hekimen oso positiboki ikusten dugu Hitzatik. Hartu ditudan datuen arabera, 600 bat langile biltzen ditu Hekimenek eta nik uste dut, beharrak eraginda, gutxieneko baldintza batzuek adostu ditu beren artean nahikoa ezberdinak diren komunikabideekin: Zuzen, Hitzak, Berria, Elhuyar, Argia eta Tokikomak biltzen dituen KARKARA eta beste hainbat herri aldizkari, telebista... Aurrerapauso da hori eta hortik jo behar litzatekeela uste dut nik -iritzi pertsonala da, gero-, egoera ekonomikoa hobetuko balitz ere. Zenbait alorretan bateratuta ibili behar genuke denok. Konpetenzi gisa erdarazko prentsa ikusi behar genuke, eta ez geure artean.

Diru-laguntzei dagokionez, alde guztietatik jasotzen dugu guk: Eusko Jaurlaritzatik, Aldunditik eta Udaletatik, egindako hitzarmenei esker. Aldatuz jotzen dira hala ere azkeneko diru-laguntza horiek herriaren arabera, Udaleko alderdiaren arabera eta herri bakoitzaren egoeraren arabera. Aurten, adibidez, herri txiki batzuetan arazoak dituzte aurrekontuak onartzeko eta esanda digute, dagoeneko, ez dela guretzako diru-laguntzarik egongo.

Zein euskara mota erabiltzen duzue? Hiruiek euskara batuaren aldeko hautua egin duzue, baina badira beren euskalkian idaztea aukeratu duten beste hedabide batzuk.

Jabier: KARKARAN gai horren inguruan ez da eztabaida handirik izan. Gaur egun aldizkari batzuek eremu formalerako egiten duten euskalkiaren erabilera nahiko anekdotikoa dela iruditzen zait. Gehienon apustua bestelakoa izan da: euskara batua erabili ahalik eta kutsu lokal gehiena emanaz, bertako hitzak eta espresioak erabiliz, aberastasuna euskalkian bilatuz, baina euskara batutik abiatuta.



Petxarroman: Duela gutxi garbizalekariaren bozeramaileak garela esan zigun Natxo de Felipek elkarrizketa batean. Komunikabide nazional batean euskarak eremu formaleko erabilerakoa izan behar duela uste dugu eta hautu garbia egin dugu Euskaltzaindiak jartzen dituen arau eta irizpideak betetzeko. Batzuetan arau horiekin ez da lortzen errealitateak eskatzen dituen erronka guztiei erantzutea. Aldian-aldean *asmatu* egin behar izan ditugu hitz edo espresioak. Oraindik normalizaziotik urruti gauden momentuan, egunkari nazional batek egiten duen lana oso garrantzitsua da. Ez gara jarriko euskalgintzak bere buruari jarri dion bidetik kanpo eta bide nagusia Euskaltzaindia da.

Dena den, gauza bat da Euskaltzaindiak euskara idatzirako jarritako arau-sorta. Baina guk, egunkari garen heinean, komunikazio hizkuntza bat daukagu: esaldi luzeak ezin dira izan, ahalik

eta irakurle gehienek ulertzeko moduko hizkuntza erabili behar dugu... Ez dakit lortzen dugun, baina ibilbide horretan bidea egin dugu oinarriak finkatuz. Gaur egun erabiltzen dugun euskara orain dela 20 urtekoa baino naturalagoa da zentzu horretan. Jendeari ere, irakurtzerakoan, naturalagoa egiten zaio.



Lete: Gertuko batua izan dadin saiatzen gara gu, eskualdean erabiltzen diren hitzak eta esamoldeak erabiliz; era berean, simple edo ulerterraz idazten. Batzuetan polit idatzi nahian zaildu egiten dugu irakurketa. Gainontzean hizkuntzarekin ez dugu gure artean eztabaidarik izaten.

Euskal prentsak duen estrategikotasunaz jabetzen al dira politikariak? Ba al dago euskararen inguruko nahikoa kontzientzia?

Zabaleta: Denetarik dago hemen ere; nahikoa garbi ikusten dute batzuek; beste batzuei, berriz, etengabe ikusarazi behar izaten zaie. Horrelako eztabaidekin ibiltzen gara beti, eguna joan eta eguna etorri.

KARKARAREN kasura etorrita, bere premia nahikoa kontu onartua da, bai Aiako Udalean eta baita Oriokoan ere. KARKARARI lagundu beharra inork ez du zalantzan jartzen, eta kopurutan ere ez da normalean eztabaidarik izaten.

Iaz hitzarmen bat egin zen Orioko Udalarekin, datozen lau urteetarako diru-kopuru jakin batzuk lotuz. Azken urteotan horrek ez du eztabaida handiegirik sortu. Aiarekin hitzarmenik ez da egin, baina nahikoa finkoak izaten dira handik jasotzen diren laguntzak. Beti eskasean, baina gutxieneko horiek ziurtatuta izaten ditugu.

Euskal prentsarako, orokorrean, apurak etortzen dira eta horrekin bizitzera ohituta gaude; horri esker eusten zaio tentsioari eta, agian, gauzak hobetu ere egiten dira diru gutxirekin. Dena dela, komunikabide publikoetan gastatzen diren diruen eta komunikabide publiko ez diren horiei ematen zaizkien artean izugarritzko desoreka dagoela azpimarratuko nuke. Euskal Irrati Telebistan (EITBn) gastatzen den diruaren ehuneko oso txiki batekin Berriak *marabillak* egingo lituzke; baita Urola Kostako Hitzak... ere. Behar dugu euskarazko telebista ere, baina egoera orekatuago batean diru horiek beste modu batean banatuko lirateke; eta hala egin beharko litzatekeela uste dut.

Lete: Urte askoan Berriako Interneteko arduradun izan den Enekoitz Esnaolarekin izan naiz duela gutxi. Orain gutxi EITBko egoitzara joana dela esan zidan eta interneteko kazetariak non zeuden galdetuta, 40 ordenagailu ikusi zituela aitortu zidan; eta harrিতuta gelditu zela, Berrian bi ordenagailu eta bi teknikari baino ez daudelako, eta emaitza, Berriak eta EITBk egiten dutena, ez dela hain ezberdina. Zein desberdinatasun dagoen baten eta besteen baliabideen artean!

Bestalde, jendeari papera interesatu ez arren, Internet bidez jarraitu egiten gaitu. Alde horretatik, nik uste dut garrantzitsua dela hori egiteak kostua dela jakinaraztea irakurle horiei: nahiz eta berek doan jaso, ez da doakoa, atzean langile batzuk daude eta une honetan diru sarrerarik gabe.

Interneten kasuan garbi ikusten dugu erredakzioa berrantolatu egin behar dela. Informazioaren munduan datozen erroka berriak bide horretatik datoz; gero eta gehiago eskatzen da albisteari etorri bezain laster heltzea. Jendearen informazio gose hori ase beharra dago eta gu orain arte antolatuta gauden bezala ez gara iristen. Beraz, erredakzioa antolatzen ari gara bi euskarritara begira. Erredakzio guztia multimedia da gaur egun —Petxarroman

Petxarroman: Batzuen eta besteon arteko desoreka hori oso nabarmena da. Dena dela, guk dauzkagun baliabideak dauzkagu eta ahalik eta produkturik onena egiten saiatu behar dugu.

Interneten kasuan garbi ikusten dugu erredakzioa berrantolatu egin behar dela. Informazioaren munduan datozen erroka berriak bide horretatik datoz; gero eta gehiago eskatzen da albisteari etorri bezain laster heltzea. Jendearen informazio gose hori ase beharra dago eta gu orain arte antolatuta gauden bezala ez gara iristen. Beraz, erredakzioa antolatzen ari gara bi euskarritara begira. Erredakzio guztia multimedia da gaur egun; erredakzio osoak egiten du lan internetera eta paperera begira. Egia da disfuntzio handiak sortzen zaizkigula dauzkagun baliabideak dauzkagulako eta paperera begirako egunkari bat egiteko inertzia izan dugulako orain arte. Beste erroka bat sortu zaigu orain: edizio jarraituko atari bat egitea, etenik gabekoa. Baliabide eskasia horretan nabaritzen dugu gainkarga: kazetariak goizean hasiz gero lanean, gauean hutsunea dago eta, hortaz, askotan goizetik gauera egiten da lan. Horrek jendea etengabe higitzen joatea eragiten du, behar ez diren baldintzetan lan egiteagatik, baina hori tokatzen zaigu. Horregatik ez gara negarrez hasiko. Jarraitu egingo dugu, herri honetan badaukagulako funtzio bat: euskaraz eta modu independentean informatzea. Horri eutsiko diogu aurrerantzean ere Berrialagunek, akziodunek, harpidedunek eta oinarri sozialak laguntzen segitzen duen bitartean.



Gaur egun papereko irakurle kopurua galtzen ari dela esan duzue, interneterako joera pixkanaka handituz doalako. Pentsatu al duzue interneteko edizioa irakurtzeagatik kobratzea?

Petxarroman: Momentuz ez. Ez dakit nola aldatuko den egoera hemendik urte batzuetara, baina oraingoz ez. Hala ere, gaur artean egin dira proba batzuk: esaterako El Paisek euro baten trukeko edizioa jarri zuen sarean eta porrot egin zuen. Gaur egun lehen unetik den-dena iraultzen du internetera eta ia papereko edizio osoa sartzten du ia paperekoa bera argitaratu baino lehen. Beraz, A-tik Z-raino egin dute salto tarte batean, di-da batean.

Guk, besteak beste, interneteko erronkari heltzeko planteatu genuen Berrialaguna kanpaina zabaltea. Interneti erantzutea erronka handia da, baliabide dezentek eskatzen dizkiguna, etengabe egunkari nazional bat egiten jarri behar baitugu, etengabe arituz lanean. Kontuan hartuta, gainera, hortik ez dugula diru sarrerarik jasotzen –publizitateetik oso gutxi sartzten da-eta ezinbestean zerbait behar genuen hori orekatzeko; beraz, gure interneteko irakurleei laguntza eskatzea erabaki genuen. Neurri handi batean horiei begira egin zen Berrialaguna kanpaina. Dei bat egin genion jendeari laguntzatxo bat eskatzeko, interneteko edizioa egiten segitzeko. Izan ere, haiek edizio hori doan jasoko dute, baina guri lan hori egitea ez zaigu doan ateratzen. Horixe da Berrialagun askok egiten duena: urtean 100, 50 edo 200 euroko ekarpena egiten dute; ekarpen iraunkorra izatea nahi duguna. Egia da oso kontent gaudela Berrialaguna kanpainak izan duen erantzunarekin. Iaz, 500.000 euroko ekarpena jaso genuen Euskal Herri osoan. 4.000 bat Berrialagun egin genituen guztira.

Egia esan, Berriak gizartera, euskalgintzara eta euskaltzaleengana jo izan duenean, oso erantzun ona izan du beti. Iaz ere halakoxea izan zuen. Aurrerantzean ere, seguru asko, bide horretatik jo beharko dugu.

Dei bat egin genion jendeari guk interneteko edizioa egiteko ahalegina egingo dugula esateko; eta haiek edizio hori doan jasotzen dutenez, baina guri lan hori egitea doan ateratzen ez zaigunez, laguntzatxo bat eskatzeko

Zabaleta: Momentu honetan 4.000 inguru berrialagun gaudela? Nahikoa datu ona iruditzen zaidala esan behar dut. Ez neukan datu horren berri.

Katalunian publikatzen den egunkari digitala da Vilaweb: www.vilaweb.cat. Interneten bakarrik argitaratzen da. Haiek gurearen antzerako zerbait daukate: bere eduki denak doan, denentzako eskura, denentzako doan, eskaintzen ditu Vilawebek, baina diru-laguntza bat ematea eskatzen dio gero sektore inplikatuenera edo benetan horren premia

Kataluniako Vilaweb egunkari digitalak bere eduki denak doan, denen eskura, jartzen ditu sarean... 2.500 laguntzaileetara iritsi dira. Katalan hiztun herri osoari -9.000.000 katalan hiztun omen daude munduan- ematen dio zerbitzua. Gurearekin konparatuta, Berria zenbaki horietan ibiltzea estratosferikoa iruditzen zait

ikusten duenari. Uste dut eguneko 16 zentimo edo horrelako zerbait dela eskatzen dutena.

Orain, duela astebete edo, argitaratutako datuen arabera, 2.500 laguntzaileetara iritsi dira. Datu oso ontzat ematen dute, datorren urterako 5.000 laguntzaile izatera iritsi nahi dutelako. Eta kontuan hartu behar da Vilawebek katalan hiztun herri osoari -9.000.000 katalan hiztun edo omen daude munduan- ematen diola zerbitzua.

Tamaina horietan, gurearekin konparatuta, Berria aipatutako zenbaki horietan ibiltzea estratosferikoa iruditzen zait.



Petxarroman: Ni beti harritu izan nau herri honek. Ikusi besterik ez dago Egunkaria itxi zutenean zein azkar erantzun genien erronka berriei. Egia da etengabe harritzen gaituela herrira jotzen dugun bakoitzean zein erantzun ona izaten dugun. Horrek berak aurrera egiteko ilusioa eta gogoia ematen dizkigu.

Guk 4.000tik gora Berrialagun ditugu eta horri 9.000tik gora harpidedun gehitu behar zaizkio. Izan ere, ez gara harpidedunengana joan Berrialagun egiteko eskatzera. Haietako batzuk egin dira, baina sektore hori guretzako bada jada Berrialaguna; bada gure komunitateko partaide.

Etorkizunera begira komunitate bat osatzen ari gara, hori izango delako bizirauteko oinarria. Hori da Vilaweb egiten ari dena. Mundu osoan ere bide hori jorratzen ari direla uste dut: hedabidearen komunitatea osatzen, interneteko ekonomikoki dituen gabezia horiei -asko inbertitzen da, baina ez dago diru-sarrerarik orokorrean- erantzuteko dagoen formulatiko bat da irakurtzen duenari ekarpen bat eskatzea. Katalunian hasi dira eta gu ere hasi ginen.



Etorkizunera begira komunitate bat osatzen ari gara, hori izango delako bizirauteko oinarria. Hedabidearen komunitatea osatu eta internetek ekonomikoki dituen gabezia horiei -asko inbertitzen da, baina ez dago diru-sarrerarik orokorrean- erantzuteko dagoen formulatiko bat da irakurtzen duenari ekarpen bat eskatzea.

Zabaleta: Datorren olatua hori dela uste dut. Vilawebeko zuzendari Vicent Partalek kontatu izan du, duela pare bat urte edo Estatu Batuetan eredu hori ikusi zuenean –Vilawebek hura kopiatu egin du– segituan sentitu zuela hori dela datorrena. Aplikatu egin du orain berak. Pixka bat harrituta zegoen Partal Espainiako Estatuan berak bakarrik izan direla pauso hori eman dutenak. El Pais, El Mundo... egunkari handiek ez dute eredu hori hartu.

Eta hor KARKARAREN kasua aipatu nahi dut. Guk ez genion *crowdfunding* edo horrelako ezer deitu, baina KARKARAKO laguntzaileen figura horixe bera da. Guk herri guztiari eskaintzen diogu KARKARA aldizkaria, zabal banatzen dugu, eta inori ez diogu zentimorik eskatzen; debalde da. Baina benetan KARKARAREN premia ikusten duenari, herriko aldizkariaren alde egin nahi duenari, laguntzaile izateko aukera ematen zaio.

Orion, 5.000 biztanleko herrian, 400 inguru laguntzaile ere izan ziren garai batean, orain kopurua jaitzita egongo bada ere –330 inguru laguntzaile dira egun–. Oso zenbaki altuak dira.

Bestalde, nik uste dut klabea eta funtsezko ezaugarri bat dela komunitatearen kontua; komunitateak sortzea. KARKARAK herrian zerbaitegatik funtzionatu izan badu, produktua komunitate jakin baten premiekin ondo uztartu duelako izan da. Oriotarrek gizarte honetan dauzkaten premia komunikatioak asetu egin ditu; hobeto batzuetan, okertxeago beste batzuetan, baina tresna eraginkorra izan da. Komunitatea sortzen laguntzen du horrek. Eta azken batean, hedabideak komunitatea sortzen eta egituratzen laguntzen duen neurrian, ondoren, hori finantzatzeko prest egoten da komunitatea.

Herri guztiari eskaintzen diogu KARKARA, zabal banatzen dugu, eta inori ez diogu zentimorik eskatzen; debalde da; baina benetan KARKARAREN premia ikusten duenari, herriko aldizkariaren alde egin nahi duenari, laguntzaile izateko aukera ematen zaio

Euskararen alde dirua jarri behar denean jartzen da, ados. Baina eguneroko martxan erdal komunikabideetara jotzen da. Euskararen erabilera ez da zabaltzen esparru horretan.

Petxarroman: Erabat bat gatoz; hori da gure errealtatea. Nolabait esateko, ur putzu bat gara ozeano baten erdian. Erdal prentsa, erdal komunikabideak, erdal mundua, orokorrean, uholde bat da eta gu ia etengabe lehortzen den iturri bat. Gainera, jendea guregana erakartzeko gaitasun oso txikia daukagu. Hasteke, zenbat euskaldun alfabetatu daude? Kopurua txikia da. Euskal Herrian 4tik 1 izango gara euskaldunak; eta 1 horietatik denak ez dira alfabetatuak. Horrez gainera, ahalegina eginez gero, gaitasuna izan dezaketen eta erakartzen ez ditugun asko daukagu. Zergatik den hori? Oso zaila da erantzutea. Zergatik gazte euskaldunek, gero eta gazte euskaldun gehiago egon arren, gero eta gehiago gehiago jotzen dute erdarara? Beste galdera asko daude. Hizkuntzalarriak ere azterketa horretan dabilta.

Guk daukaguna daukagu. Gehien irakurtzen, ikusten eta jarratzen diren hedabideak erdaldunak direla argi dago. Ez dugu gure burua gehiegi zigortu behar. Aurrera jarraitu behar dugu eta euskaldunei ahalik eta informazio hoberena eta ahalik eta kalitate oneneko produktuak eskaini behar dizkiegu; eta erdaldunari mundu interesgarri bat galtzen ari

direla erakutsi. Hori da gure lana azkenean.

Txillardegik ere esaten zuen herri honek erakusten duen euskararen erabilera maila fideltasun handiko komunitate linguistiko batena dela, baina ahuleziak ere handiak dauzkagula. Komunitate linguistiko gutxiagotu bat gara, erdarak izugarritzko indarra dauka. Gure esku dagoen neurrian eusten diogu.

Gure desabantaila euskarazko irrati baten, egunkari baten, aldizkari baten ondoan gaztelaniazko hamar-hamabost ditugula da. Bestela, zenbakiei erreparatuta gure egoera ez da horren txarra: esaterako, 60.000 irakurlek jarraitzen dute Berriaren papereko edizioa eguneroko. Euskal Herrian 3 milioi biztanle daude eta horietatik euskaldun alfabetatuak 600.000 inguru direnez, %10a liriateke Berriaren irakurleak –zenbakiak orain dela urte batzutaakoak dira–.

El Paisen kasuan, %5ekoa litzateke zenbaki hori. Paisek, ordea, El Mundo, La Razon, ABC... dauka ondoan; eta gure kasuan bakarra da Berria. Aldiz, guk daukagun bitartekoak eta jendeak dien harrera ez da horren txikia, beste herrietan hedabideak jarraitzeko ohitura nolakoa den ikusita batez ere.

Petxarroman: Nik uste dut ezaugarri hori, euskararen alde ematea, barnerratuta dagoela Euskal Herriko jendearen izaeran. Guk hari horretatik asko tira izan dugu historikoki. Pena da askotan etengabe joan behar izatea diru eske, baina gure erralitatearen parte da.

Katalunian eta Partalekin egon izan gara eta haiek harritu egiten dira Euskal Herriarrek ematen duten erantzunarekin. Orain 4.000 laguntzaile daukagu, baina duela 10 urte egunkari berri bat sortu genuen bi hilabetetan 5.000.000 euroko ekarpenarekin, esate baterako. Egunkaria bera ere horrelaxe sortu zen.

Egunkaria itxi zutenean, Martxelok askotan kontatzen du nola guardia zibilek ez zuten sinisten hori horrela zenik. Ezinezkoa iruditzen zitzaien jendeak dirua musutruk ematea. Orduan hasi ziren esaten diru hura ETAK emandakoa zela eta bat eta beste, ez zutelako ulertzen gure herriaren idiosinkrasi edo ezaugarri hori. Guk alde horretatik begiratuta badaukagu abantaila bat. Kataluniarrek beste hamaika bentaja daukate gure aldean, hizkuntzaren egoera bera tarteko.

Zabaleta: Gure herriaren, Orioren, egoera bera nahiko aipagarria da, eboluzioa nola joan den begiratuta. Gaur egun, us tekabeen kasik, KARKARA *mainstream* bilakatu da. Txoko batean zegoen lehen. *Batzuek aldizkari bat atera nahian dabilta. Ea zenbat irauten duen!* zioten. Bat batean, komunikabide sendo bat da, jendearen aurrean prestigio bat duena, jendeak gogoz irakurtzen duena, erreparatzen zaiona. Gainera ondoan Urola kostako Hitza dauka.

Diario Vasco ere gero eta gutxiago irakurtzen da. Espazio batzuk ere irabazi ditugu. Ez gaude itxaferoetarako, baina goazen baloratzeri daukaguna. Puska bat aurreratu dugu, batez ere Orio bezalako herri txiki euskaldunetan. Gaur egun normaltzat jotzen dugu herriko berri euskaraz irakurtzea. Diario Vasco kroniken erdia baino gehiago euskaraz dago! Hori ez genuen pentsatzen orain dela 20 urte.

Lete: Euskarazko prentsak daukan muga bat da gutxi garena. Hitzan saiatzen gara euskaldun guztientzat den zerbaitegiten, eta Berria uste dut ere baietz. Jendea identifikatu egiten da gurekin. Gure muga naturala da.

Komunikabide txikiak elkartzen hasi dira, indarrak metatu eta erronka berriei elkarrekin egiteko aurre. Urola Kostan ere aukera hori aztertzen ari gara. Nola ikusten duzue bateratze posible hori?

Lete: Oso baikor ikusten dut nik. Ni neroni ez naiz prozesuko bileretara joaten, baina Hitzako beste ordezkari bat bai. Eskualdeko herri aldizkariak eta Hitzza elkartzen dira batzar horietan gure eskualdean zer egin daitekeen aztertzeko, Tolosaldeko edo Debagoieneko ereduak erreparatuz.

Adibide bat jartzearen, Azpeitiko Uztarria aldizkaria eta Hitzza bulego berean gaude. Urtea joan eta urtea etorri, prentsaurreko bat dagoenean, Uztarriako kazetaria eta Hitzakoak biok joaten gara, bakoitzak bere hedabidean gauza beraren berri emateko. Indarra, dirua eta baliabideak galtzen ari garela iruditzen zait eta horrek produktuari eragiten diola.

Kasu honetan ez dut ezer txarrik esateko maila batean edo bestean elkartuko bagina. Bide eta formula asko leudeke: bakoitzak bere nortasun produktuari helduta, publizitate arloan, diru-laguntzak eskatzeko orduan edo enpresa bat eta produktu bat egiterakoan, nik uste dut zabalik dagoela atea.

Herritar bat: Zumaiako eskubaloi taldeak zer egin duen ez zait batere inporta. Eta hori da azkenean produktu batetan ikusten duzuna: interesa. Edozeinek daukagu aldizkarian zati bat irakurtzen ez duguna. Bakarra baldin bada ondo; produktua kontsumituko duzu. Baina interesatzen ez zaizuna %75a baldin bada, produktuak bere arrazoia galdu egiten du merkatuan.

Orio txikia da eta aldamenean herri handiak dauzka. KARKARAK guri eman digu protagonismoa. Eta gurea izan da; gu ulertzen gaituena eta gu azaltzen gaituena.

Urola Kostako Hitzza hartu eta hemen bertako jendearengan sortzen duen sentsazioa da: dena zer da Zarautz eta Azpeitia? Dena handia bakarrik? Eta hori beti izango gara gu txiki. Eta oriotar bati ez dago beste ezer izorratuko dionik hori esatea baino. Nik uste dut hori dela gakoa.

Zabaleta: Gaiak kezka sortzen dit niri. Dударik ez daukat egokitu beharra dutela komunikabideek krisi garai honetan. Seguru asko ez da oso jasangarria Orion hamabostean behin aldizkari bat egotea, Hitzza astean lautan kaleratzea, aipatu den bikoiztasunarekin. Guztiok diru baliabide txikiagoak dauzkagun neurrian egokitu beharra izango dugu.

Eskualde honek dauzkan berezitasunetan ikusten dut zailtasuna. Tolosaldean posibleago ikusten dut horrelako planteamendua egitea, hura eskualde

Seguru asko ez da oso jasangarria Orion hamabostean behin aldizkari bat egotea, Hitzza astean lautan kaleratzea, aipatu den bikoiztasunarekin. Guztiok diru baliabide txikiagoak dauzkagun neurrian egokitu beharra izango dugu

naturala delako, komunitate bati erantzungo diolako han sortuko den tresnak. Goierrin ere beste horrenbeste, baina hemen nor aurkeztuko da Urola-Kostako bezala? Oriotar, zarautzar, zumaiar... gara. Urola-Kosta ez baita ezer, erakunde administrazio bat baino ez. Gu ez gara Urola-Kostatar sentitzen.

Oriotar bati Zumaitik harago gertatzen dena zenbateraino inporta zaio? Komunitaterik ez dago hor. Oriok oso komunitate zentzu indartsua dauka; oso harro gaude oriotar izateaz. Urruti samarreko komunikabide bihurtzeko arriskua dauka Urola Kostako proiektu horrek.

Oriok Aiarekin konpartitzen ditu gauza batzuk. KARKARA Orio eta Aiakoa izatea ez da kasualitatea; komunitate zentzua badago. Behar bada Zarautzekin ere bai, gure gazte asko joaten da hara; eta Getariaraino agian, arrantza kontuak dirrela-eta. Baina hortik aurrera... Beraz, horrelako gauza komun bat egiten hasita, errazago ikusiko nuke Orio, Getaria, Zarautz eta Aia komunitate natural samar bat bildu eta horri erantzungo liokeen zerbaitekin asmatzea.

Ez dut erraza ikusten horrek ondo funtzionatzea. Sortu, sortuko dugu produktua, baina produktuaren onarpena zenbatekoa izango den... Lortuko al dugu jendeak berea dela sinestea eta hala hartzea?

Petxarroman: Kanpotik oso eztabaida zaila ikusten dut. Dena den, oso ondo ulertzen ditut nortasun aldetik sortzen diren gorabehera horiek. Oriorekin gainera harritu egiten naiz, zeren ni lasartearra naiz eta guretzat Orio beti izan da gure uren bukaera. Orio bada guretzako zer edo zer.

Horretaz gain, Orio zein eskualdetan kokatu ez dakizun herrietako bat denez, bere nortasunari gogor eutsi nahi dion herri bat da.

Datozkigun erronkei gero eta eskasagoak zaizkigun baliabideak beste batzuekin konpartituz eutsi behar zaiela uste dut. Nola egiten den hori? Seguru asko herriaren nortasuna eta aldizkariaren nortasuna mantentzeko borrokatuz. Hori norberaren esku dago.

Nik uste dut etorkizunak bat egitea eskatuko digula. Dena dela, Orioren kasuan, zuen zailtasunak ulertzen ditut. Oso logikoak iruditzen zaizkit. Modu natural batean ez bazaude kokatuta, ez zaude batere eroso. Egia da hori.



Datozkigun erronkei gero eta eskasagoak zaizkigun baliabideak beste batzuekin konpartituz eutsi behar zaiela uste dut. Nola egiten den hori? Seguru asko herriaren nortasuna eta aldizkariaren nortasuna mantentzeko borrokatuz. Hori norberaren esku dago. Nik uste dut etorkizunak bat egitea eskatuko digula. Dena dela, Orioren kasuan, zuen zailtasunak ulertzen ditut. Modu natural batean ez bazaude kokatuta, ez zaude batere eroso

Zaindu maite duzun hori

Mahai inguruaz gain, beste hainbat ekitaldi xume antolatu genituen KARKARAk eta Berriak euskal komunikabideen beharraz kontzientziazteko abiatutako *Zaindu maite duzun hori* kanpainaren baitan. Haurrentzako kazetaritza-tailerrak, binakako kros mistoa eta barrikotea, Julen Alonso eta Maria Lasa trikitilariak alaituta. Maiatzaren 18ak emandakoa jaso nahi izan dugu irudiotan. Argazki guztiak ezin kabituta, gutxi batzuk aukeratu ditugu. Karkara.com atariko argazki-galerian daude gehiago ikusgai.



Kirola dela-eta

Larunbat gauean etxera iritsi bezain azkar jakin nuen zeri buruz idatziko nuen hemen. Egun hartan bizitakoak, eta gertatutakoari hedabideek emango zioten tratua, garbi ikusarazi zidaten ahalik eta jende gehienarekin konpartitu behar nuela barruan neraman har hura.

Larunbat hartan Castro Urdialesera joan ginen koadrilakoak. Arrazoia bakarra eta indartsua zen: Bera-Bera eskubalo taldeari Emakumezkoen Ohorezko Mailako Liga irabazten laguntzea. Koadrilako lagun batek jokatzeko du han, eta taldeak azken urteetan izan duen helburu nagusia lortzeko falta zen pauso bakarra izaki, harmailetatik animatzera joan ginen. Ez badakizue ere, irabazi egin zuten.

Bueltarako autoan sartu bezain pronto konturatu nintzen barnean generaman poz hark gainerako gizarteari bost axola ziola. Zergatik? Hedabideetan protagonismorik ematen ez zaiona ez

delako existitzen. Hemengo irratiek behin eta berriz esaten zuten Bartzelonak futbol liga irabazi zuela, eta Bera-Bera apenas aipatzen zuten. Futbola ez diren kirolak diskriminatuta daude –salbuespenak salbu–, eta horri emakume izatea gehitzen badiogu *handicapa* sekulakoa da. Igandean egunkari batzuk Bera-Beraren argazkiak zerkartzaten azalean, baina gutzia hor amaitu da.

Diru kontuez ere ordu luzez hitz egin ahal izango nuke, baina denborarik ez daukadanez, datu aipagarri batzuk emango dizkizuet: Castroko kiroldegian sarrera 5eurokoa izan zen, Donostian, Bidebietan, zazpi kobratzen dituzte eta Europako partidengatik hamar ordaindu izan ditut. Duela hila-bete Sanseren partida bat ikusteko –2.B maila– 11 ordaindu nituen. Astelehenean Reala albiste zen sarrerak merke jartzeagatik, 20 eta 40 euro bitartean saldu baitzituzten. Bera-Berako elastikoak 35 euro balio ditu, Realekoak 67, Athleticce-

koak 75 eta Bartzelonakoak 85. Ez du baloraziorik egitea merezi, ezta? Datuek berez hitz egiten dutela uste dut.

Lagun batek dio –emakumea bera– gizonetzkoen futbolarik diru kantitate horiek sortzen baditu ikusleek ordaindu nahi dutelako dela, eta hedabideek gizarteari eskatutakoa ematen diotela. Ni ez



nago batere ados, eta erabat seguru nago gizarte dela interes horiei egokitzen zaiena, besterik ematen ez zaien bitartean, saltzen zaiena kontsumitzen dutelako.

Kirolean berdintasuna aldarrikatzera nator, bai kirolen artean eta baita genero artean ere. Meritu berbera daukate titulu bat lortzen dutenek. Aurtentzen Bera-Berak lortutakoa sekulakoa izan da, Espainiako Superkopa, Erreginaren Kopa eta esan bezala, Ohorezko Mailako txapeldunak izan baitira. Marka itzela egin dute, eta hala ere Realaren ligako balizko 4. postuak jarraitzen du albiste izaten, nahikoa da!

Realzale amorratu batek esaten dizu.



Zaragueta
Herri Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net



ANTILLA
justolera

Abeslari Kalea, 2 - Tel. 013 33 29 00

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2. 2. ezkerria ORRIO

Tf: 618 561 398 - 659 218 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE



Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Kinkladenda- Ume arropa



argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARJEN TXARTELAREKIN



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orrio (Gipuzkoa)

Automóviles
ZARAUZ

CITROËN ZERBITZU ORZIALA

Orriko Herri Ikastola

ZARAUZ, Tel. 943 13 13 50



Portu
ERRETEGIA

Santio Erreka Auzoa, 21b
943 89 44 34
20809 AIA-ORRIO

Irakurle bakoitzak berea
partida erabiltzeko erabaki

Aitona-amonez aprobetxatu!

Akitun eta sasijakitunek diotenez, gizartean, kontsumo-eredua aldatzen ari omen da. Badirudi, gauza berriak erosi beharrean, etxean ditugun traste zaharrak birmoldatu edota birziklatzen hasi garela. Ez naiz gaian jakituna, baina nire inguruan behintzat, hori gertatzen ari dela baieztatu dezaket.

Eskulanak betidanik izan ditut gustuko eta orain bospasei urte, Eskulan Taldean izena eman eta *patchwork* eta puntu-lanak ikasten hasi nintzen.

Azken denboraldi honetan, berriz, besteak beste, bi proiektu jarri berri ditut martxan nire bizitzan; kakorraz-lana ikastea bata-betikiko *ganchillo*-a-; eta hain modan dagoen terraza edota balkoietakoko baratzea, bestea.

Kakorraz-lana betidanik ikusi izan dut etxean. Gure amonak orduak eta orduak egiten zituen telebista aurrean, *Un, Dos, Tres*

programa ikusten *tiki-taka, tiki-taka*. Lan ederrak egiten zituen, esku berezia zuen jostetan. Etxean dut umetan egin zidan baserritar-jantzi eta artilezko lepokoa -*toquilla*-, baita altxorra bezala gordetzen zituen eta pezetatan dauden *ganchillo*-ari buruzko aldizkariak ere.

Baratzeei buruz, berriz, kalekume naizen aldetik, ideia askorik ez. Lotsa pixka bat ere ematen dit hau onartzeak, aitatxik eta amatxik txukun asko mantentzen baitzituzten Oribarzarreko baratzeak.

Baina nire hamalau-hamabost urterekin, aitona-amonak beren jakinduria guztia irakasteko irrikan zeuden garai hartan, banuen nik nerabezaroak norbanakoan sortarazten dituen hormona-aldaketak, eta emozioak medio, koadrilako lagunekin batera, aitona-amonekin josten eta soroan lanean jardutea baino plan hobetik. Ai! bi mundu hain ezberdin horiek uztartzen jakin izan banu...

Orain, berriz, testu hau pentsatu, idatzi eta moldatzen dihardudan bitartean, hemen nago, landatu berri ditudan marrubi eta tomate landareak behar bezala hazteko, interneten begiratu behar dudana, ondoan dudana papertxoan oharrak hartzen. Afalostean, berriz, gauerdia bitarte, amonaren aldizkaritik ateratako eskema jarraituz, *ganchillo*-a hartu eta kolore bizi-biziz hasi berri dudana pontxoari ekingo diot.

Aitona-amonez aprobetxatu! dio izenburuak eta testu honetako azken paragrafoan hori bera egin edota aitona-amonez gain, gurasoez ere aprobetxatzeko gomendatu nahi nizueke. Etxean *ganchillo*-an eta soroan, jakintza zutenak izanik, tomateak nola landatu behar diren jakiteko ni bezala interneten informazioa bilatu behar duen horietakoa baldin bazara, urteak azkar pasatzen dira eta, aukera izanez gero, behintzat, egiazue bisitatxo bat amona, aitona, amatxi, aitatxi, amama, aita-ta edota ama edota aitari, gustura irakatsiko dizute-eta. Bide batez, aita, ea noiz hartzen dugun tartetxo bat txipiroiak bere tintan zuk irakatsi eta nik ikasteko.

Nire hamalau-hamabost urterekin, aitona-amonak beren jakinduria guztia irakasteko irrikan zeuden garai hartan, banuen nik nerabezaroak norbanakoan sortarazten dituen hormona-aldaketak, eta emozioak medio, koadrilako lagunekin batera, aitona-amonekin josten eta soroan lanean jardutea baino plan hobetik

Nire honetan Lore Berasaluze

Bikotekide bila gabiltza

Berriak gara honetan. *Karkarazaindiako sarjentu* izaten ohitu egin naiz azken urteotan. Hortik aterata, galduta nago. Aurten baina, bestelako lanak egitea tokatu zait ba: binakako lasterketa mistoa antolatzea. Eta aizue! A zer komerriak!

Aurrenekoa omen da zailena. Hala izango al da, bestela ez dut nik behintzat, gehiagorako gogorik! Taldean, ahalik eta ondoen egiten saiatu gara eta lagundu nahi izan duguten guztiei esker, txukun samar egin dugula uste dut. Dena den, huts egiteak egingo genituenez, Eganek kantatzen zuen moduan, *gaizki esanak barkatu, onak gogoan hartu*. Datorrenean, datorrenik baldin bada, hobeto egiten ahalginduko gara. Eta bide batez, eguzkiak ere gure aldarrikapen festan parte hartu nahiko balu... hobe.

Esperientzia berria izan da, eta aberasgarria, jakina. Dena den, galdera bat geratu zait airean: korrika apustu soila izan al da? Ala benetan antolatzailaok nahi moduan, KARKARAREN eta Berriaren alde egin dute bikoteek lasterka? Zuen korrika saioak, saltoak, intzirriak, garrasiak, hitzak, idatziak... behar ditugu aurrera egiteko: gaur kilometro bat, bihar bi eta maratoia datorren urtean. Izango al gara biok lasterketa berri honetako bikotekide?

HARTZEA
PATXI OLIDEN
PAKITZEA

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripa, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

PATXI OLIDEN

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orrio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODLOGIA ZENTROA

KAIUA



Plater konbinatuak,
bokatak, hamburgesak...

ANIBARKO PORTUA 35, BENEA Tf.: 943 840 060

943 572 870



KOASTA

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

KOLON TXIKI

aholurik
juzaketa



Herriko Enparantza, 4
ORIO

Tel. 943 83 00 44



kutixi
kafetegia
GOSARI GOWOAK

Arriaga 9, 20810 Orrio
Tf. 943 13 15 17



gizarte
kutxa

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 - ORIO
[sareta Antantzale kaletik]

943 53 64 94 - 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

- ENPREKONTRATUEN AHOULKARITZA
- ENPREKONTRATUEN BERRIKETA
- ENPREKONTRATUEN ZERBITZUA
- LAP-INDUSTRIEN AHOULKARITZA
- ENPREKONTRATUEN
- AHOULKARITZA

Leire Alatorre Etxebarri
943 83 09 27

Berribe 19 Bn
20810 Orrio (Gipuzkoa)
943 83 09 27
www.bermeaholkularitza.com



uranga
autozerbitzua



Aliprox

Fucko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



TANATORIO ZARAUZ



EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldioroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: hazrespil@hazrespil.net

Igo zaitez haize berrietara!

Galerna I



943890416-677149934
galerna1orio@hotmail.com

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

Dorronsoro Denda

1963tik zure ondoan

BETIKO DENDA



Tel 943 83 09 37

Gaia emanda

Euskara mintzagai. Tostetatik telebistara

Ibon Gaztañazpik maiatzaren 4an Bilbon emandako hitzaldi baten laburpena da behekoa. KARKARAREN webguneko bizi-bizi blogean dago osorik irakurtzeko aukera.

Euskara, arrauna eta komunikabideak

Arrauna utzi eta ETBtik hots egin zidaten arraun informazioan aritzeko. Lehenengo urtean, elkarriketatzaila moduan jardun nuen zuzeneko emankizunetan. 2012n; arraun aditu deiturikoaren paperean, kazetari narratzailearen alboan. Telebistan lanean hasi nintzenean nire kezka handiena zen honako hau: komunikabideetan jendaurrean hizketan aritu behar dutenek hizkuntza eta komunikazio maila oso handia izan behar dute nire ustez, eta maila hori emango ote nuen. Iruditzen zait jendaurreko zenbait postutan tokia eduki beharko luketela hiztun apartek bakarrik. Hiztun aparta diot, batuan edo euskalkietan, baina hiztun ona. Irratia eta telebista entzutean, beti estimatu izan ditut esatari bizkorak eta hizkuntza mendean hartzen duten kazetariak: ondo, dotore, egoki, natural, solte, hurbileko, aberats, argi hitz egiten duen profesional jendea eta, nire kezka handiena zen hori nola lortu.

Hizkuntzaren inguruko mila zalantza nituen mikrofonoaren aurrean jarri aurretik. Haietako bat, esaterako, orioko euskararen eroso aritu edo euskara batuan egiteagatik nire jarioari bizitasuna kendu. Sartu nintzenean ETB-n, beraz, galdetu egin nuen: aizue, nola egitea komeni da? Batuaz, euskalkian? Zein dira hemen jarduteko irizpide nagusiak? Erantzuna hauxe izan ez: hik ez daukakarik problemarik, motel, hik nahi duan bezala egin ezak. Nik nahi dudana bezala? pentsatzen nuen nire baitarako, Hemen norbaitek esan beharko dit ba nondik tira...

Halaxe jarri nintzen mikrofono aurrean, eta jardunaren jardunez nire burua erosoago egotea lortu dut, ahots propioa bilatzea eta abar. Hala ere, oraindik mila zalantza baditut. Esaterako, nik badakit zein zailtasun ditudan euskara batuan euskalkian bezain arin eta solte jarduteko edo *s, z* eta *ts* -akegoki ahoskatzeko. Alde horretatik, ETB-n umezurtz samar sentitu izan dut nire

burua, eta autodidakta ere bai. Informazioaren edukiari buruz, alegia arraunari eta zeresanari buruz, ez dut zalantzarik izan nire burua ongi ikusi baitut, baina bai nire hizkerari buruz.

Albistegietan behin gertatutakoa ekarriko dut lerrotara: albistean nioen Donostian apareju-arrantzan dabilen 7 ontzi geratzen direla. Nik badakit apareju hitza euskal kostalde osoan esaten dela, baina badaezpada ere begiratu nuen hiztegieta eta aparailu ematen zidan. Nire artean pentsatu nuen: aparailu esanda inork ez zidak ulertuko. Zuzentzailearengana joan naiz eta esan diot: aizu, zalantza dut hitz honekin, apareju edo aparailu. Nik ez nuen zalantzarik; apareju esan behar da ulertzeko. Hark zer zen ere ez zekien. Hasi zen hiztegieta begiratzen eta apareju ez, aparailu erabiltzeko agindu zidan. Eta nik esan nion orduan: baina aparailu esanda inork ez du ulertuko. Eta hark: bai, badaikit, baina hiztegiak hauxe dio.

Huskeria dirudien pasadizo honek zer pentsatu dezentekoa eman zidan eta hainbat galdera eragin: *Zertan ari gara? Zeinek erabakitzen du? Zer da hemen garrantzitsua? Elkar ulertzea edo zuzentasuna?* Nire ustez, euskarazko komunikabideetan, oro har anabasa, dezentea dago egin behar den euskara ereduaren inguruan. Uste dut ahal duenak ahal duena egiten duela. Badira, noski, hizkuntza zaindu eta hizkuntzaren kezka duten kazetariak. Euskara landu eta ekarpenak egiten dituztenak. Baina uste dut gutxiengoa direla; oro har, euskara gero eta gutxiago zaintzen dela, ez dela estimatzen, ez dela lantzen, ez dela exijitzen.

Nire ustez, euskarazko komunikabideetan, oro har anabasa, dezentea dago egin behar den euskara ereduaren inguruan

tzen. Gaztelaniaz inolaz ere onartuko ez genituzkeen mila hanka sartze eta errazkeria euskaraz onartu egiten ditugu ahozko jardunean. Zer hobesten da euskarazko telebista edo irrati batean euskaraz jardun behar duen kazetari bat hautatzean? Ibilbide profesionala, eza-gutzak, kontaktuak, adina, itxura fisikoa eta edertasuna; edo komunikatzeko eta ikuslearengana heltzeko gaitasuna? Iruditzen zait gero eta gutxiago baloratzen dela euskarazko hiztun ona, eta hortik dator nire etsipena.

Amaitzeko, arrauna eta euskara kontuak uztartzen dituen beste pasadizo bat ekarriko dut lerrotara: Iaz Amilibia trainerugileak traineru-modelo berria atera zuen. Erdarazko komunikabideak hasi ziren esanez *tiene forma de plátano* eta *platanito, platanito*. Komunikabide euskaldunak ere segituan hasi ziren traineru berriari platanito deitzen. Garai hartantxe Kortari elkarrizketa bat egin behar izan nion eta traineru haren berezitasunagatik galdetuta, hauxe erantzun zidan: *Honek zaukak arripaura*, nik ezagutzen ez nuen hitza. Joan nintzen Oriora, galdezka hasi eta 55-60 urtetik gorako arrantzale gehienek zekiten zer zen arripaura –batuan arrufadura eta gaztelaniaz *arrufo*–.

Adibide egokia izan liteke ulertzeko euskarazko komunikabideetan hizkuntzaren inguruan nola jokatzeko den: euskarazko hitz jatorra eduki, eta gaztelaniatik platanito hartu behar. Komunikabideek ardura eta kezka pittin bat izanez gero, nahikoa da esatari batek bitan esatea arripaura edo arrufadura, hitz hori zabaltzeko, hitz jator eta dotore askoa. Baina horretarako hizkuntzarekiko interesa eta kezka duen norbaitek egon behar du hor. Nik platanito entzuten dudana bakoitzean, ikaragarritzko amorrua ematen dit. Besteak beste, arraunean platanito beti deitu izan zaiolako arraunlariek erabiltzen duten estropadarako jantziari.

Ibon Gaztañazpi

Kazetaria



Askotariko teknikak erabiltzen ditu Perezek bere margo-lanetan. KARKARA

Margo klasikoei buruzko iritzi klasiko bat

Kritika Pintura erakusketa

Margolaria: Josetxo Perez.
Tokia: Orioko Kultur Etxea.

Margo klasikoan mugitzen da Josetxo Perez, Getariako, Donostiako eta Gironako txokoak marraztuz, besteak beste. Paisajea gogoko du eta nabari da Euskal Herriko txoko eta koloreak gustatzen zaizkiola.

Marrazkietan bolumenarekin eta konposaketarekin ez du gehiegi jolasten; esan daiteke bere margoa nahiko

laua dela, sinplea. Beraz, apustu segurua egiten du; hilezkorra, beti arrakasta izango duena; baina nekagarria izan daiteke aldi berean.

Errealismo gradu baten bilaketan ari dela esango nuke eta zuri-beltzeko lanetan indar handiagoa hartzen du errealismo horrek. Pastelaren bidez ere transmititzen du, baina modu leunago batean. Kolorea sartzean lanak ahuldu egiten ditu, presentzia eta indarra galtzen dute eta horrekin batera interesa.

Bigarren koadroa da nire ustez ederrena, sinplea eta dotorea: etxe bat zelaian, besterik gabe. Okrea eta hainbat berde tonu erabiltzen ditu eta

aura misteriotsua sorraraztea lortu duela iruditzen zait. Marrazkilari amerikar baten obra etortzen zait burura hori ikustean: Edgard Hopperren -1882-1967- *Corn Hill*.

Askotariko teknikak erabiltzen ditu Josetxo Perezek bere koadroetan: akuarela, oleoa, luma, pastela... Perspektiba eta marran ongi moldatzen da, eta lumarekin teknika landua du.

Idea oso ona iruditu zait irudi bera zuri-beltzean eta koloretan aurkeztea, teknika horrekin interes bikoitza sorrarazten baitio ikusleari irudi bakoitzarenganako.

ZORIONE MENDEZ

Ikasleak idazle
Jon Barrenetxea

Txu-txu tren

Nire ustez, Orioko txu-txu trenak ordutegi luzeagoa eduki beharko luke.

Batetik, jende askorentzat oso baliagarria izaten baita udaran tren erabiltzea leku batetik bestera joateko; beraz, ordu gehiagoz erabiltzeko aukera eduki beharko genuke.

Bestetik, jende askorentzat oso eroso da, beren gauzak egiteko orduan trenaren mugikortasunaz baliatzea, eta aukera hori oraingo ordutegiak ez du asko baliatzen uzten. Beraz aukerarik egokiena

denbora gehiagoz martxan edukitzea izango litzateke.

Azkenik, ulergarria izango litzateke norbaitek esatea gau partean ez dela beharrezkoa tren martxan edukitzea, baina kontuan izan behar da jende asko ibiltzen dela gau partean hainbat aktibitate egiten; esaterako hondartzako zinematik jende asko mugitzen du.

Jende askorentzat oso eroso da, beren gauzak egiteko orduan trenaren mugikortasunaz baliatzea



2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)
943 635 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |
FATXADEN ERABERRITZEAK |
IBOGAILUEN PROIEKTUAK |
GREMIO KOORDINAKUNTZA |
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... |

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGOA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731 722

» HANDIK ETA HEMENDIK



“Badira nire errepertorioan kantu batzuk nire bizitza hipotekatua daukatena, nire kontzertuak bai, gutxienez. Askotan kantu batzuk aparkatzeko gogoia sentitu arren, batzuekin ezinezko gertatzen da”.

“Askotan neurria gaintitu dutenean kantu batzuk utzi egiten ditut denboraldi batez berriz gustura hasteko. Kantuei haize pixka bat eman behar zaie aldian-aldian.”

Benito Lertxundi, kantaria, Euskadi Irratia, 2013-05-11.

» OSPAKIZUNA



Gasteizko maratoiko hirukotea

Gaur bete da hilabete argazkian ikusten den hirukotea Gasteizko Martin Fiz maratoia egitera joan zela. Hirurak joan arren bitan banatuta egin zuten lasterketa: Aitor Rubiok 2:56:10ean bukatu zuen maratoia 44. postuan; Joakin Alberdik eta Xixario Urangak, berriz, elkarrekin egin zuten lasterketa 3 ordu eta 25 minutuan. Ez dira asko Orion maratoia egindakoak eta majo kosta bazitzaien ere pozik daude hirurak.

» ZORIONAK!

KARKARA eta Berria lagune

Joan zen astean KARKARA eta Berriaren egoera eta etorkizuna oinarri hartuta, herritarren euskal komunikabideen aldeko kontzientzia indartzeko hainbat ekitaldi antolatu gertu.

Mahai ingurua entzutera joan eta beren ideiak azaldu zein galderak egin zituzten herritarrak eskertu nahi ditugu.

Era berean, larunbatean, goizeko jolasetan parte hartu zuten neska-mutikoak zein arratsaldean, eguraldiari aurre eginez korrikara animatu ziren bikoteak zoriondu.

Eskerrik asko, benetan, Karkara eta Berriari laguntza eman zenioten guztioi, aurrerantzean ere hala egingo duzuen esperoan.

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudari, 4b
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 84 87 32

LURDES
KANTALDEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

MIRANDA
ARTE LARAK

tarima, ate, leño, eskalera...
behar diren artoz lanak
egingo ditugu

Urdaneta bidea, 1 - 669 42 52 70 - ZARAUTZ

PERTSIANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Mugakorra 600 70 52 27

LORETXU JATEKAK

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

le apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

ODITZ

Arina zahaleko oinetarak
guzti eta eraberritzeak

tel. 943 83 00 89

URAITZ
Larrendegia

Janari eta sagarrak

Enlata 3 Tfwn: 943 83 18 97

“Beldurrez hasitako ikasleak gaur egun bakarrik ibiltzeko gai dira”

Aitziber Arregi

KZguneko dinamizatzailea

Nabigatzera joaten direnei azalpenak ematea da bere eginkizuna. Metapostaren inguruko zalantzak ere argitzen ditu. Interneteko ikastaroak planifikatzeaz, kudeatzeaz eta irakasteaz zein izen-emateaz eta IT txartelaren azterketaz ere bera arduratzen da.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Bi urte dira Aitziber Arregi zestoarra Orioko KZgunean dinamizatzaile lanean hasi zela. Pantaila aurrean ematen ditu eguneko ordu asko ikasten, baita hainbat herritarri ordenagailuak erabiltzen irakasten ere.

Zein jende etortzen da Orioko KZgunera?

Denetarikoa jendea etortzen da, bai nabigatzera, baita ikastarotara ere. Ikastarotara emakume gehiago etortzen da, baina nik gizonezkoak ere animatu nahi nituzke ikastera etor daitezen.

Zer behar da KZgunean nabigatzeko?

Bakoitzak erabiltzaile eta gako bana eduki behar ditu. Horretarako KZgunera joan eta izen-emate orria bete behar du.

Ikastaroetan parte hartzeko, berriz, KZgunera joan, izen-emate orria bete, eta interesa duen ikastaroa aukeratu behar da; %70ko ikasle kopurua izanez gero, egingo dute ikastaroa.

Nolako ikastaroak eskaintzen dituzue?

Hainbat modulu ditugu eta horietako bakoitzean ikastaro bat baino gehiago. Honakoak dira moduluak: e-administrazioa, Google aplikazioak, oinarrizko internet, irudia eta soinua, sare sozialak eta software librea.

Hasi berriek oinarrizko internet ikastaroa egiten dute eta errepikatzen aukera daukate, gainontzeko beste ikastaroak bezala. Ondoren, interesatzen zaizkien beste ikastaroak aukeratzen dituzte. Luzeena, oinarrizko internet, 20 ordukoa da, eta beste ikastaro asko bi ordukoak baino ez dira.

Herritar gehienek ordenagailua badakite nola erabili. Oinarrizko kontuak ez dakitenak nola gonbidatuko zenituzke?

Lehenik eta behin KZgunea 16 urtetik gorako edozeinentzako irekia dagoela esango nioke, -16 eta 18 urte bitartekoek gurasoen baimena beharko dute- eta ez dela inolako beldurrik eduki behar gauza berriak ikasteko. Ordenagailua nola erabili behar duen erakusteko gaude hemen, eta askotariko jendea pasatu da guretik, bai gazte eta baita helduak ere. Izan ditut ikasleak hasieran izugarriko beldurrarekin etorri zirenak eta gaur egun bakarrik ibiltzeko gai direnak, gogo handiz, gainera.

“Ordenagailua nola erabili behar duten erakusteko gaude eta guretik askotariko jendea pasatu da, bai gazte eta baita helduak ere”

“Jendeari esan nahi nioke gutxienez probatzeko bakoitzak bere burua ordenagailu aurrean nola ikusten duen”

Internet mundua oso aberatsa dela eta gaur egun komenigarria dela Internet eta teknologia berriak ezagutzera esango nioke jendeari. Bestalde, gutxienez, bakoitzak bere burua ordenagailu aurrean nola ikusten duen probatzeko eta gustura egonez gero jarraitzeko aukera duela. Horrez gain, esan beharra dago ikastaro guztiak doakoak direla.

Zein ordutegi du KZgunek?

Egunero egoten da irekita 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Dinamizatzaileok egunean lau orduz egoten gara. Hilabete bikoitietan arratsalde eta, aldiz, bakoitietan goizez.

Zein dira KZguneko erabilera arauak?

KZgunea jolasleku gisa ez erabiltzea; nagazio-zerbitzuaren 45 minutuko denbora-muga errespetatzea; sexu esplizitua duten, xenofoboak edo arrazistak diren delituzko jarduerak sustatzen dituzten, legez kanpo dauden edo indarkeria bultzatzen duten web orrialdeetara ez sartzea; dinamizatzaileak desegokitzat jotzen dituen edo legez kanpo dauden gauzak egiteko zentroa ez erabiltzea; eta altzariak eta ekipamendu informatikoa errespetatzea.



KARKARA

4. orritik dator

orkestra honi laguntzen beste hainbat lagun ere izan genituen: konboko partaideak, eskola bertako musika mintzairako, kantuko eta dantzako ikasleak, Orioko Salatxo abesbatza eta bakarlari gisa aritu zirenak.

Musikaririk gabe ezingo litzateke gutia antolatu baina egun hau aurrera ateratzeko izan dugun laguntzarik gabe ere ez. Beraz, eskerririk beroenak eman nahi dizkiogu lehenik Orioko Udalarari eta beraien hainbat baliabide uzten dizkiguten Orioko Herri Ikastolari, Karela kiroldegia eta Salatxo abesbatzari ere. Baina bereziki ikasleen gurasoei seme-alabei lagundu ez ezik guri, antolatzailerai ere fin-fin lanean lagundu zigutelako. Hurrengoan ere doinu berriak ez ezik

horiek eskaintzeko musikari berriak ere etorriko direlakoan, mila esker. ■ **Orioko Danbolin Musika Eskola.**

ORAIN, agur

Herri natur taldean eta ORAIN herri plataforman, bietan batera, aritu izan naiz lanean bi urte pasatxotan. Eta, haien arteko jarduna, azkenaldi hone-tan kontrajarria ari da izaten. Horregatik, lan antzua egiteaz aspertuta, jatorri-ra bueltatzeko erabakia hartu dut. Abiapuntu izan dudana hartan jarraituko dut, Herrion alegia. Eta, ORAIN utzi egin dut. Horrela, benetan nireak ditudan iritzien alde egin ahal izango dudalako.

■ **Eneritz Odriozola**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidal daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.



Katu Horia
ORGANIZAZIO BULBO
ESTROPALARI, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99
Lortzaileak
608 67 64 95



RAMIRO
argazkiak
www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com
610 69 76 68
943 83 10 48

Axier

egunero-egunero,
zuekin...

www.karkara.com

Konektatuai!

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
T/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

ARKAITZ
Taberna

Pinxoak,
plater konbinatuak
eta ogi arteko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

merkealdia

%60 arte

dekorazio proiektuak
altzariak neurria
tapiztegia
lan-elkarteen arteko koordinazioa

Olaskeogia auzoa 20809 Aia, Oio, Gipuzkoa 943 134 921

ZUR EDER
muebles tapicería altzariak



Kukuarrira igandean

Talai Mendi elkarteak antolatutako mendi astea aurrera doa. Hitzaldien eta mendi babeseko ikastaroaren ondoren bi ekitaldi izango dira asteburuan. Larunbatean, 16:00etatik 20:00era bitartean hurrek rokodromoan ibiltzeko aukera izango dute kiroldegian. Igandean, berriz, 09:30ean egin dute hitzordua Herriko Plazan Kukuarrira igotzeko, han 11:00etan meza entzun eta ondoren salda beroa eta pintxoak jateko aukera emango dute.

Orio

Musika

- Maiatzaren 24an, Arrutiko intxaurrak bakarlariaren kontzertua, 22:00etan, Kultur Etxean.
- Maiatzaren 27an, Danbolin musika eskolako gitarra taldearen emanaldia, 19:45ean, Zaharren Babeslekuan.
- Ekainaren 1ean, Danbolin musika eskolako gitarra taldearen emanaldia, 11:30ean, Eguneko Zentroan.

Irteerak

- Maiatzaren 15 eta 16an, Bartzelonako ACTko estropadan trainerua animatzera bidaiatzen. Autobusa eta hotela: 110 euro. Irteera, larunbatean, 06:00etan, autobus geltokian. Izen emateko epea: ekainaren 2an, Salatxo tabernan.

- Maiatzaren 25ean, 16:30ean eta ekainaren 1ean, 10:00etan, Kayak Oriar ibaian. Irteera eta izena ematea: Orioko Turismo Bulegoan: 943835565.

Saskibaloia

- Maiatzaren 25ean, infantil neska: Orioko ikastola-Landaberri, 09:30ean, Karelana.
- Maiatzaren 25ean, senior mutilen hirugarren maila: Zarautz Sharks-C.D. Internacional Lizardi, 11:15ean, Karelana.
- Maiatzaren 25ean, senior mutilen bigarren maila: Autobuses Alustiza Orio-Cafes Aitona, 16:00etan, Karelana.

Futbola

- Maiatzaren 25ean, afizionatuen gorengo mailako hirugarren postuko partida: Orio-Ordizia, 17:30ean, Mendibeltz zelaian.

Bingoa

- Maiatzaren 29an eta ekainaren 5ean, bingo saioa, Zaharren Babeslekuak antolatuta, 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Euskara

- Maiatzaren 29an, *Euskaraz bizi nahi dut* tailerra 18:30ean, Kultur Etxean.

Traste zaharrak

- Maiatzaren 29an, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien alboan. Aurrez deitu 943830346 zenbakira zer atera behar duzuen esanez.

Bakarrizketak

- Maiatzaren 31n, bakarrizketak Jon Apaolaza eta Barry barrezekin, 22:00etan, Kultur Etxean. Gonbidapenak: Gargardo azokan eta maiatzaren 27tik aurrera, Kultur etxean.

Bilerak

- Ekainaren 3an, San Pedro festak antolatzeko herritarren bilera irekia, 18:30ean, Kultur Etxean.
- Ekainaren 4an, Boxetako batzarra, 19:00etan, Kosta tailerreko bilera gelan.

Bazkaria

- Ekainaren 13an, Arrantzale jubilatuen bazkaria, Altzerri jatetxean. Izen-ematea: ekainaren 10a baino lehen, Kofradian.

Danborrada

- Ekainaren 11n, 13an, 18an, 20an eta 25ean, umeen danborradarako entseguak, 19:00etan, Kultur Etxe atzeko plazan.
- Ekainaren 18an, 20an eta 25ean, helduen danborradarako entseguak, 20:00etan, Kultur Etxe atzeko plazan.

Aia

Erromeria

- Maiatzaren 26an, erromeria Astiazaran II eta Narbaiza trikitilariekin, 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aristerrazu plazan.

berria

berria

berria

